



Euskal Herriko Unibertsitatea
Universidad del País Vasco



GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO
ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS SOCIALES
Y DE LA COMUNICACIÓN

**HARRERA ETA ERRESISTENTZIA PRAKTIKAK
MIGRAZIO PROZESUETAN. GIZARTE ERAGILE
EZBERDINEN ALDERAKETA KUALITATIBOA**

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Batirtze Benito Gomez

ZUZENDARIA: Zesar Martinez

Soziologiako Gradua (UPV/EHU)

2021-2022 ikasturtea

AURKIBIDEA

1. SARRERA	4
2. IKERKETA GALDERAK.....	5
3. HELBURUAK	6
3.1. Helburu orokorra:	6
3.2. Helburu espezifikoak:	6
4. MARKO TEORIKOA.....	6
4.1. Kontzeptualizazioa.....	6
4.2. Pertsonen arteko bereizketa funtzionalismotik	8
4.3. Arrazakeria eta arraza	12
4.4. Integrazioa	15
4.5. Migrazio prozesua.....	16
4.5.1. Zailtasunak	16
4.5.2. Kapital soziala eta immigranteen elkarteak	16
4.6. Kolonialismoa eta dekolonialismoa.....	23
4.7. Ukrainako krisiak eragindako harrera aldaketak	28
5. DISEINU TEKNIKOA ETA METODOLOGIKOA	34
6. DISKURTSO ANALISIA.....	38
6.1. Eragile ezberdinen arteko ezberdintasunak antzematea	38
6.2. Bakoitzaren logikaren barnean artatuak izan direnen esperientziak/bizipenak ezagutu	51
6.3. Ukrainako krisiak ekarritako harrera moduen inguruan duten pertzepzioak ezagutu	55
6.4. Basoako proiektua hobeto ezagutu alternatiba askatzaile moduan.....	59
7. ONDORIOAK:.....	63
8. BIBLIOGRAFIA:.....	66
9. ERANSKINAK.....	71
9.1. Elkarrizketen gidoia.....	71
9.1.1 Eragileei zuzendutako gidoia	71
9.1.2. Etorkinei zuzendutako gidoia.....	73
9.2. Transkribapenak.....	76

9.2.1. Talde elkarrizketa (Basoa – Artea Sarea).....	76
9.2.2 . Irungo Harrera Sarea	94
9.2.3. Larraña etxea (Zehar).....	103
9.2.4 Larraña etxeko etorkina / egoiliarra	111

1. SARRERA

Gaur egungo gizartearen erronka da migrazioa, baita kezka iturri nagusienetarikoa ere; izan ere, milaka pertsonen haien etxea uztera behartuta daude hamaika faktoreen ondorioz; hala nola, gerrak, krisi klimatikoak, ekonomiko edota politikoa, genero edota LGTBI problematika. Kezka iturri hau Ukrainako krisiak areagotu du. Hala ere, ikusi dugun bezala, krisi honek harrera moduetan eragina izan du, aldaketak ekarriz; izan ere, besoak zabalik artatu dituzte instituzioek eta gizarteak. Hegoalde globaletik datozenek bidea hasi orduko bizitza arriskuan jartzen dute migrazio politiken ondorioz. Beraz, krisialdi humanitario baten aurrean gaudela ezinbestekoa da azpimarratzea.

Helmugako gizartera iristea lortzen dutenak egoera zaurgarrian egon ohi dira, errekurtsorik gabe, hizkuntza jakin eta lurraldea ezagutu barik, besteak beste. Egoera honek giza eskubideak urratzen ditu eta egoera hau gainditzeko beste lurralde batzuetako laguntza ezinbestekoa izaten da. Honek guztiak kezka politikoa eta humanitarioa sortzen du, baita kontraesan ugari ere; izan ere, hein batean gizartea laguntza eskaintzeko prest dago, baina ez daki egoerari nola aurre egin baliabideak haren esku izan barik. Honek, beraz, frustrazio sentimendua eragin dezake. Hala ere, gatazkak edo eztabaidak ere indarrean daude; izan ere, migrantea arrotz bezala ikusten da askotan, hau da, iragarriezina. Era honetan, ezagutzen ditugun pertsonen zer espero dezakegun argi dugun arren, migranteekin ez da gauza bera gertatzen eta hortaz, gure bizitza estiloa desagitea eragin dezaketela uste da (Bauman, 2016).

Ez da erreza izaten haien zailtasunak, edo familiarik aldentzea, baina ez dute beste aukerarik ikusten. Migrazio orok familiarik aldentzea ekartzen duen arren, migrazio irregularrak familia arteko distantzia areagotzen du, distantzia eta espazioari dagokionez; izan ere, dokumentu gabeko migrazioa joanaldi bide bat da: bidea hasten denean ez dago atzera bueltarik (Khosravi, 2010:66). Bidaia ere oztopoz beteta egoten da; hildakoak, atxiloketak, torturak, bortxaketak, lapurretak eta zerrenda luze bat. Hala eta guztiz, etorkinak kriminalizatzeko joera dago, baita ilegaltzat kalifikatzeko ere. Khosraviren aburuz, migrazioaren kriminalizazioa kriminalizazioaren bidez gobernatzeko politikaren funtsezko elementu bihurtu da, eta delitugileak sortzen ditu zigortu ahal izateko. Gizarte arazo bat *delitu* gisa birdefinitzea eta horren eraginez

kaltetua izan den taldeetako bat *delitugile* gisa etiketatzea estrategia politiko bat da, lehen delitutzat jotzen ez ziren gaietan esku hartze handiagoa legitimatzea helburu duena (Khosravi, 2010:64-65). Gainera, gure lurraldera iristea lortzen dutenek, beldurrez, ezjakintasunez eta esperantzaz beterik beste oztopo bat gainditu behar dute, aurretiaz adierazitako "ilegaltasun" edo hobeto esanda, egoera irragularraz gain, gizartean integratzea, ohiturak eta hizkuntza ikasiz. Migrazio prozesua hasten dutenetik lotsa sentitzea barneratzen dute; izan ere, lotsa Estatu nazioaren subiranotasuna urratzeagatik ilegalari ezartzen zaion zigorra da. Lotsa besteen gaitzespen begiradaren eraginpean egotean datza (Khosravi, 2010:127). Prozesu hau errazteko ezinbestekoa da kapital soziala. Era honetan, sare batek norberarengan segurtasuna eta konfiantza izatea ekar dezake, baita sostengu ekonomikoa eta informazioa erraztasunez eskuratzea ere (Khosravi, 2010:105).

Egoera honen aurrean, badira hainbat eragile migratzaileei laguntza eskaintzen dietenak; hala nola, instituzioak, GKE-k, herritar taldeak... Baliabideak bilatzen dituzte egoera honetan daudenei bidean laguntzeko, haien zaurgarri egoera gainditu ahal izateko. Etxeko epeltasuna zer den gogoraraztea saiatzen dira eragile hauek. Garrantzitsua da adieraztea jarduteko moduak desberdinak izan daitezkeen arren, helburu bera dutela; migratzaileei babesa eta laguntza eskaintzea, alegia. Modu honetan, elkarlana bultzatzen da; izan ere, etorkinak, ez dira ikasi behar duten bakarrak, hemen gaudenok ere asko baitugu ikasteko, aniztasunaren bidean. Beraz, lan honen helburua hori da, eragile bakoitzaren jarduteko modua ezagutzea zein alderatzea eta lan horrek migranteengan sortzen dituen bizipenak eta sentimenduak ezagutzea. Azken honetan enfasia egin nahiko nuke; izan ere, haiek dira haien errealitatea hobekien ezagutzen dutenak eta isildutako ahots hori entzutea ezinbestekoa iruditzen zait.

2. IKERKETA GALDERAK

- Zertan desberdintzen dira migranteei harrera egiten dieten eragile ezberdinen diskurtsoak eta praktikak?
- Errekurtso eta espazio ezberdinek baldintzatzen dute laguntza jaso duten migratzaileen bizipenak?

3. HELBURUAK

3.1. Helburu orokorra:

- Harrera praktikak egiten dituzten eragile ezberdinak alderatu.

3.2. Helburu espezifikoak:

Gure ikerketa aurrera eraman ahal izateko helburu orokorra barnebiltzen dituzten 4 helburu espezifiko bereizi ditugu egungo egoera aintzat harturik. Honako hauek dira:

1. Eragile ezberdinen arteko ezberdintasunak antzematea
2. Bakoitzaren logikaren barnean artatuak izan direnen esperientziak/bizipenak ezagutu
3. Partaideek Ukrainako krisiak ekarritako harrera moduen inguruan duten pertzepzioa aztertzea
4. Basoako proiektua hobeto ezagutu aldaketa berritzaile moduan

4. MARKO TEORIKOA

4.1. Kontzeptualizazioa

Migrazioa eta eragileekin hasi aurretik, zehaztu ditzagun gai honen azterketan erabiliko ditugun kontzeptu batzuk; hala nola, migrazioa bera, migrazioari loturiko transnazionalismoa, atzerritarra, etorkina, besteak beste.

Uneskoren arabera, migrazioa da “esparru geografiko jakin batetik bestera populazio jakin batek egiten duen desplazamendua, epe luze edo mugagaberako” (Moreno eta Aierdi, 2015:9). Definizio honek bere mugak ditu; izan ere, esparru geografikoari zein denborari gutxi erreparatzen zaie. Beraz, ezinbestekoa da mugimendua bi esparru geografiko esanguratsuen artean gertatzea; hala nola, udalen, probintzien, erkidegoen edota estatuen artean. Gainera, mugimenduak iraunkorra izan behar du, noizbehinkakoa baztertuz. Nahitaez lekualdaketak aldaketa garrantzitsua suposatu behar

du arlo fisikoan zein sozialean (ibidem). Mugikortasunak askatasunarekin zerikusia duten elementuak barne hartzen ditu. Hau horrela izanik, Baumanen hitzak kontuan hartzea garrantzitsua da; izan ere, honen aburuz "askatzeak, emantzipazioaz hitz egitean, mugimendua eragozten edo ahultzen duten loturak alde batera uztea esan nahi du, besterik gabe, jarduteko gaitasunari eta, jakina, mugitzeko gaitasunari dagokienez aske sentitzea da" (Bauman, 2020 hemen aipatua: Gutiérrez, 2020:3). Beraz, mugikortasunak muga, transnazionalismoa edo lekua bezalako kontzeptuen konbinazioan lotutako migrazio-teoriaren elementuak biltzen ditu (Anderson eta O'Dowd, 1999; Gustafson, 2009; Marcu, 2013; Vertovec, 2001 hemen aipatua: Gutiérrez, 2020:3).

Transnazionalismoa etorkinek jatorrizko eta helmugako gizarteak lotzen dituzten gizarte harremanak garatu eta mantentzeko jarduera eta prozesu sorta zabal batean datza (Basch et al. 1994 hemen aipatua: Vancea eta Boso, 2017:12). Beste autore batzuk, aldiz, transnazionalismo kontzeptua aktore ez instituzionalek mugen bidez sortzen dituzten praktiketara mugatzen saiatu ziren, Estatuko erregulazio eta kontrol eremutik kanpo garatzen direnak, alegia (Portes et al., 1999; Portes, 2001; Guarnizo, Portes y Haller, 2003 hemen aipatua: Vancea eta Boso, 2017:12).

Transnazionalismoaren baitan Smith eta Guarnizok (1998 hemen aipatua: Vancea eta Boso, 2017:ibidem) bi mota desberdindu zituzten. Alde batetik, goitik egindakoa. Honetan gobernuen eta korporazio multinazionalen mugaz gaindiko jarduerak kokatzen dira. Bestalde, behetik egindakoa. Honetan, aldiz, gizarte zibileko eragileek garatutako ekimenak, gobernu kanpoko erakundeak, gizarte mugimenduak eta etorkinak, estatuko mugen bidez jarduten dutenak izango genituzke (ibidem). Hauen ezaugarriak aurrerago ikusiko ditugu.

Uneskoren migrazio definiziora bueltatuz, honetan beste muga bat topatu dezakegu; etorkin eta atzerritar kontzeptuen nahasketa, alegia. Atzerritarra lurralde bateko nazionalitatea ez duen pertsona da. Era honetan, etorkina izan daiteke ala ez. Gehienetan horrela izango den arren, kasu batzuetan lurraldean jaiotzean, lurraldearen nazionalitatea ez izatea gerta liteke; beraz, atzerritarra soilik izango litzateke. Etorkina, aldiz, leku batetik bestera mugitzen den pertsona da; lurralde berean izandako migrazio

fluxua baldin bada, pertsona hori etorkina izango da, baina atzerritarra ez (Moreno eta Aierdi, 2015:10).

4.2. Pertsonen arteko bereizketa funtzionalismotik

Azken mendeetan estatu-nazioa gizartea antolatzeko eremua izan da, gizartean dagoen aniztasuna baztertuz (Aierdi eta Moreno, 2015). Era honetan, Estatuak espazioan finkatuta eta haien mugak markatuta daude, orden bat ezarriz. Beraz, mugen transgresoreak edo urratzaileak jaiotzaren eta nazionalitatearen aurkako lotura hausten dute, baita gizakiaren eta hiritarraren identitatearen lotura ere, nazio estatuaren sistema krisian jarriz (Khosravi, 2010). Mary Douglasek garbitasuna eta ezpurutasuna bereizi zituen, eta gizarte egitura zaintzeko eta moralki onargarria dena zehazteko mekanismo bat dela argudiatu zuen. Agiririk gabeko migratzaileak eta baimenik gabe mugak zeharkatzen dituztenak kutsatuta daude eta kutsatzaileak dira sailkaezinak direlako. Trantsiziozko izaki bezala, bereziki kutsatzaileak dira, ez baitira ez bata eta ez bestea, edo agian biak; ez daude ez hemen eta ez han. Asko eta asko kultura sailkapenaren denbora-espazioan aitortutako puntu finkoen artean daude nonbait (ibidem). Migranteen inguruko irudi hau, hau da, kutsatuak daudela eta hortaz, kutsatzaileak direla, oso hedatuta dago. Horretaz gain, ez herritar gisa aurkezten dira, mehatxu gisa, alegia. Haien bizitzak ez dira baliogarriak. Mary Douglas ez da holako bereizketa bat egin duen bakarra; izan ere, Iraide Fernandezek eta Julia Shershnevak immigranteak “onak” edo “txarrak” etiketekin lotzen direla adierazi zuten, baita biktimaren irudiarekin ere (Fernandez eta Shershneva, 2017).

Harreraren eta bazterketaren arteko dialektikak erakusten du mugen barruan abegia araututa dagoela. Estatu nazioen sisteman, estatu arteko akordio bidez aldatzen da, beraz, baldintzazkoa da. Anfitrinoa etxean egotea eskatzen du, gonbidatuari irekiko zaion espazioaren jabe izatea eta espazioa ixteko aukera izatea: subiranoa izatea atea ixteko gaitasuna izatea da (Khosravi, 2010).

Baldintzapeko abegikortasunak merezi dutenei bakarrik, hau da, pasaporteak, baliozko bisatuak, banku kontu hornituak edo gonbidapen gutunak dituztenei bakarrik irekitzen die atea. Subiranotasunak mugak arautzen ditu abegi ez-produktiboa saihesteko, kostu bat dutenak kanpoan mantentzeko, hau da, errefuxiatuak. Baldintzapeko abegi ona,

meretzimenduan oinarritua, etorkin on eta produktiboei zuzentzen zaie, kualifikatuei eta parekagarriei, edo asilo eskatzaile ikaragarriei eta ahotsik gabekoei. Baldintzapeko abegi onaren politika ere nazioa eraikitzekeo prozesu bat da. Horrela, merezi duten eta egiazkoak diren errefuxiatuak hartzea eta merezi ez dutenak eta faltsuak direnak kanporatzea mugak berresteko ekintza subiranoa da. Abegikortasun politikak anfitrioiak apopiloaren gainean dituen ahalmen eta botere politikak dira. Aldi berean, gonbidatua da anfitrioiari esanahia ematen diona; izan ere, anfitrioiak abegi ona edota eskaintzeko gaitasuna izan behar du, bestela, ez dago anfitroirik (ibidem).

Derridarentzat (2000), abegi ona etsaigoarekin lotuta dago; anbibalentzia hau agerian uzteko, *hospitality* terminoa erabiltzen du. Abegi onaren anbibalentzia gizabanakoak hasieran onartzean datza, baina gero belaunaldiz belaunaldi arrotz gisa mantentzen dira, gu bezalakoak ez direlako baztertzen ditugu eta errefuxiatu-guneetan, barneratze-zentroetan edo ghettoetan jartzen ditugu. Gaur egun aberriabeek, asilo eskatzaileek eta agiririk gabeko migratzaileek aurre egin behar diotenari, aurkako abegi ona da (Derrida, 2000 hemen aipatua: Khosravi, 2010:212).

Derridak dioen bezala, tolerantzia abegikortasunaren kontrakoa da, eta tolerantzia txikiagoa edo tolerantzia falta boterea atxikitzekeo eta etxearen gaineko kontrola mantentzeko modu bat da (ibidem). Etxeak baztertzeko lekuak dira, ez gizarteratzeko lekuak. Era honetan, etxearen nozioak arrazismoa eta xenofobia areagotzen ditu (Khosravi, 2010:167). Etxean egoteak mugak eraikitzea eta bestea baztertzeta esan nahi du. Taldearen edozein identifikazio motak eraikitzen du bestearen kategoria soziala (ibidem).

Agiririk gabeko migratzaileen aurkako egungo *hospitalitya* etorkinak bortizki asimilatzekeo edo erbesteratzeko erabili izan diren bi estrategien bertsio modernoa da. Beraz, giza eskubideak, herritarren eskubideetara mugatzen dira; hau da, eskubideak Estatu nazioak finkatzen ditu, lurralde horietako biztanleriarentzat. Era honetan, estatu nazioaren sistematik at kokatzen direnek ez daukate eskubiderik (Khosravi, 2010).

Aurreko guztia, funtzionalismoarekin lotu dezakegu; izan ere, honek ordenaren garrantzia defendatzen du, baloreen, arauen eta pentsatzeko moduen errepikakortasunean

oinarrituz. Hauek ezin dira sortu edo aldatu, subjektuak era pasiboan barneratzen baititu, berez emanda daudelako. Ordenak, hortaz, gizarte kohesioa edo segurtasuna ekartzen ditu funtzionalisten aburuz. Segurtasuna ez da goraipatzen banakoen eguneroko bizitzan bakarrik, kapitalismoak berme juridikoak behar ditu jabetza pribatua eta honetatik ateratako etekina babesteko. Garrantzitsua da azpimarratzea berme juridiko horiek lortzea ezinezkoa dela segurtasun barik. Gu-besteak, edo arauak betetzen dituztenak – betetzen ez dituztenak banaketaren bidez, funtzionalismoak ezabatu daitezkeen banakoak ekoizten ditu; hots, puntu beltzak. Honi etsaiaren zuzenbide penala deritzo. Ideia hau diziplina eta banakoen elkarrekiko kontrolarekin lotu dezakegu.

Beraz, estatu-nazioek migratzailea, etorkina, errefuxiatua, mehatxu gisa ikusten dute. Era honetan, segurtasunaren diskurtsoa apurtu egiten da, baita beldurraren ondorioz biolentzia legitimatu ere. Hau da, kanpotik etorritako pertsona edo mehatxu hauek helmugako gizarteko segurtasuna urratzen dutenez, helmugako gizarteak haien aurkako biolentzia erabiltzea zilegitzat jotzen du; hala, pertsona horiek haien giza izaera galtzen dute, puntu beltz soilak bilakatuz. Foucaulten bio-boterearekin harremanetan jar dezakegu hau; izan ere, honen goiburua “biziara – utzi hiltzen” da. Beraz, hau ardatz harturik, García arrazakeria normalizazioaren boterea gauzatzeko behar gisa sortzen dela adierazten du, hori da hiltzeko eskubide subirano zaharrak jarrai dezakeen baldintza izanik (García, 2004 hemen aipatua: Pintado, 2020:110).

Estatu nazionalaren subiranotasuna urratzeagatik ilegalari ezartzen zaion zigorraren zati bat da lotsa. Lotsa da besteen gaitzespen begiradaren eraginpean egotea. Arriskua dago legez kanpoko migratzaileak, gizatasunaz gabetzen duen begiradaren eta tratua mendeko dagoenak, lotsa barneratzeko eta dokumenturik ez izatea urritasun eta gutxiegitasun pertsonala dela uste izateko (Khosravi, 2010). Esan genezake, lotsa estigmatizazioaren ondorioa dela. Estigma, gizarteak edo pertsona talde batek zerbaiti buruz dituen ideia negatiboak bezala definitzen da, askotan, justifikaziorik gabekoak. Edo lotsa edo deskonfiantza marka bat bezala (Merriam-Webster Dictionary, hemen aipatua: Bauman, 2016:41). Beste era batera esanda, pertsona bati edo pertsona talde bati egotzitako ezaugarria da (Bauman, 2016:41). Era honetan, aurreko parrafoan adierazitako gu-besteak banaketa ekarriko dugu berriz gurera; izan ere, gu normaltasunaren barnean

kokatzen garen bitartean, besteak anomalo bezala identifikatuko ditugu. Beraz, estigmatuta dagoen pertsona, ez-gizaki bezala interpretatuko da, hau guztiz baztertuz (ibidem).

Legezkontrakotasunaren ondorioz, migratzaileen bizitza ezegonkorra, aurreikustezina eta aldrebasa da. Legez kanpokoak¹ izateak esan nahi du bizitzaren etenaldi malkartsu eta dramatikoan, atxiloteta, deportazioa edo, besterik gabe, etxez aldatzeko bat-bateko aukeren agerpenaren eraginpean egotea. Migratzaileak arrastorik utzi gabe desagertzen dira (Khosravi, 2010). Era honetan, migranteek agorafobia pairatu dezakete, besteen artean egotearen beldurra, alegia. Beste era batera esanda, ikusiak izateko beldurra. Beraz, ironikoa bada ere, agiririk gabeko migratzailea herritar eredugarria da, dena ondo egin behar baitu, inolako arazorik ez izateko. Izan ere, ondorioen beldurra dago. Ilegalaren etiketak halako mantsotasuna eragiten du, non semaforoa gorri dagoela kalea gurutzatzera ere ausartzen ez diren (ibidem). Egoera irregularrean egoteagatik migranteek kalera irtetzean sentitzen duten beldurra edo *gu* taldearen baitan kokatuko balira bezala jokatu behar izatea ez da urrutiko kontua, Estatu Espainiarrean ere gertatzen baita. Honen adibide Madrilen bizi den Moussa Diopena da. Bere hitzak gurera ekarriz: “ez dut paperik, baina jan eta argia eta alokairua ordaindu behar ditut. Zuek nire lurraldera bidaiatu dezakezue, baita edozein tokitara ere, baina niretzat kalera ateratzea ere arazo bat da” (Sindicato de Manteros instagramek eskuratua)². Kalera *Carrefour*eko poltsa batekin irtetzen da, ibiltzeko baimen gisa. Era honetan, poliziaren atentzioa deitzea saihestu nahi du; izan ere, bere kide batek ez zuen zorte onik izan; “aurreko egunean nire lagun bat poltsa barik kalera irten zen eta poliziak gelditu zuen” (ibidem).

¹ Legez kanpokoak den pertsona egoera irregular batean dago; izan ere, migrazio ilegala burutu behar izan du. Hau da, emigratu du jatorrizko lurraldetik baldintza zehatz batzuk bete barik (Aierdi eta Moreno, 2015).

² Moussa Diopen testigantza (Sindicato de Manteros):
<https://www.instagram.com/p/CAYTL2CqUT2/>

4.3. Arrazakeria eta arraza

Aurretik aipaturiko biolentziaren zilegitasun hori arrazakeriarekin lotu dezakegu. Arrazakeria, Castellanosen aburuz, batzuen nagusitasuna eta besteen gutxiagotasuna dakarren desberdintasun biologiko, kultural eta nazionalen hierarkizazioa da. Era berean, estatua da arrazakeriaren erreprodukzioan esku hartzen duena, instituzio maila ezberdinetan, non hainbat eragile inplikatzaren diren, indibidualki zein kolektiboki, baita eguneroko bizitzan ere (Castellanos, 2001 hemen aipatua: Pintado, 2020:109). Garrantzitsua da adieraztea gaur egun, arrazakeriak eraldaketa handia jasan duela, bai edukian, bai agertzen den formetan. Europako kontinentean, teoria arrazista XVIII. mendekoa da, nazionalismoaren kolonizazioarekin eta garapenarekin batera. Bigarren Mundu Gerran iritsi zen gorenera, goi eta behe mailako giza "arrazak" desberdintzen zituen ideologiak bigarrenen sarraskiak ahalbidetu zituenean (ibidem). Nagusitasuna botere tresnetatik dator, hala nola, dirutik edo gerra baliabideetatik. Era honetan, menderatzailearen ezaugarriek menderatuarekiko nagusitasuna legitimatzen dutela dioen ideologia eratzen dute botere tresna horiek (Betto, 2021).

Arrazakeriak oinarri zientifikoak ezarri nahi dizkio bere jarrerari, nahiz eta oinarri zientifiko hauek ez existitu. Izan ere, ezberdintasunak kulturalak dira, ez biologikoak. Honen eraginez, "arrazak" kontzeptuak gaur egun indarrean irauten du (ibidem). Genetikak gizaki guztiok DNA bera dugula erakusten du. Era honetan, ezberdintasunak ez datoz geneetatik, elkarbizitzan eskuraturiko herentzia material gabeengatik baizik; hala nola, hizkuntza, ohiturak, balioak, besteak beste. Beraz, arraza kontzeptua aurreiritziak eta diskriminazioa legitimo bilakatzeko baliatzen da (Betto, 2021). DNA partekatzen dugula onartzea mehatxu bat da kontrol bitartekoak dituztenentzat, eliteek pobreen gainean duten aberastasunarentzat, baita gizonak emakumearen gainean duen indar fisikoarentzat ere (ibidem).

Garrantzitsua da koloreari erreparatzea; izan ere, askotan ezaugarri biologikoekin harremanetan jarri da sexua bezala. Baina, kolorea asmakizun eurozentrikoa da. Gainera, gizarte kolonial/modernoan, kolorea ez da beti izan arrazializatzeko elementurik edo arrazakeria-proiekturik garrantzitsuena, hala nola, gainerako zuriekiko, juduekiko, eta,

oraintsuago, arabiar israeldar harremanak arrazializatzeko prozesuetan bezala (Quijano, 2007:124).

Bigarren Mundu Gerran gertatutako Apartheiden ondorioz, baita gorrotoan oinarritutako beste gertakari batzuen ondorioz ere, herritar mugimendu ezberdinen borrokak eskubide zibilak bermatzeko ahalegindu dira, hala nola, beltzak eta esklabuak. Era honetan, eskubide zibilek arrazakeria biologikoa, hau da, arraza ezaugarrietan oinarrituriko arrazakeria lausotzen lagundu dute, baita eduki arrazista ezaugarri kulturalen hierarkizazioagatik ordezkatzeari ere; hala nola, erlijioa, ohiturak, hizkuntza... (Fernandez eta Shershneva, 2017:3). Hau horrela izanik, autore ezberdinek arrazakeriaren inguruko irudi berriak planteatu dituzte. Bakerren aburuz, arrazakeri berri hau identitate kulturalaren ustezko galeran oinarritzen da, aniztasun etnorazialaren gorakadaren ondorioz (ibidem). Gizarte psikologiak, aldiz, arrazakeria modernoaren terminoa erabiltzea proposatzen du, besteak (McConahay, 1986 hemen aipatua: Fernandez eta Shershneva, 2017:3) edo aurreiritzi sotilak (Pettigrew eta Meertens, 1995 hemen aipatua: Fernandez eta Shershneva, 2017:3) eragiten dituen berdintasunezko balioen eta sentimendu negatiboen arteko kontraesan baten emaitza gisa definituta, besteak sortutako mehatxu pertzepzioan eta kultura desberdintasunen gehiegikerian oinarrituta (ibidem). Azkenik, Kinderrek eta Searsek arrazismo sinbolikoaren kontzeptua planteatzen dute: besteak gizarte hartzailearen balio tradizionalak urratzen dituela (Kinder eta Sears, 1981 hemen aipatua: Fernandez eta Shershneva, 2017:3).

Arrazan oinarrituriko mekanismoetako bat arrazakeria estrukturala edo instituzionala da, Carmichael eta Hamiltonen 1967an lehen aldiz deskribatua eta gerora beste egile batzuek garatua. Horiek, oinarri arrazistarik edo argi definituta ez dauden eragilerik gabe, gizarte talde behartsuen desabantaila egoera betikotzen dute, mendeko eta desabantaila egoeran mantenduz. Beraz, arrazakeria instituzionala gizarte baten praktika sozialetan txertatuta dago, eta askotan oharkabea pasatzen da, hainbat mekanismo sozialetan agertzen den bitartean (Fernandez eta Shershneva, 2017:4).

Giza izaera galtzen duten pertsonen oinarrizko behar diete aurre, bai jatorrizko lurraldetik helmugako lurraldera iristeko egin beharreko ibilbidean zehar, bai behin iritsita helmugako lurraldean; izan ere, honetan, integrazioaren erronkari aurre egin

beharko diote. Hala ere, batzuek ez dute oztopoei aurre egitea lortzen, bidean gelditzen baitira. Baieztapen hau Caminando Fronteras kolektiboak berresten du; izan ere, talde honek “Derecho a la vida” izeneko txostenean argitaratu bezala, soilik 2021. urtean 4.404 pertsona izan dira Espainiarako sarbideetako biktimak. Biktima hauetatik 4175 izan dira bizitza galdu dutenak muga igaro nahian eta 229 desagertu egin dira. 2020. urtearekin alderatuta, heriotzek % 102,95 egin dute gora (Caminando Fronteras, 2021). Garrantzitsua da aipatzea migratzailearen profila aldatu dela; izan ere, 70. hamarkadaren erdialdean gizona, indibiduala, formazio gutxikoa eta denbora luzerakoa izaten zen. Gainera, loturak eta harreman kulturalak apurtzen zituzten beren jatorrizko lurraldeekin eta ibilbide berri bat hasten zuten helmugako lurraldean. Geroztik perfila aldatu egin da; gaur egun, edozein adinetako emakume zein gizon, formazio maila ugarietakoak dira etortzen direnak, sare eta talde bidez. Gainera, gaur egun etortzen direnetariko batzuek haien jatorrizko lurraldeetara bidaiak egin ditzakete (Albite, 2008:51-52).

Butlerrek negargarritasun³ kontzeptua baliatu zuen. Honen inguruan ari denean pertsona baten galera negargarria baldin bada, pertsona hori estatus baten parte da; bestela ez. Negargarritasuna eraginkorra da pertsona oraindik bizirik dagoen bitartean: balioen eskema bereizgarri baten barruan haien balioa definitzen duten izaki biziei egotz dakiekeen ezaugarria da, eta eragin zuzena du gizarteko taldeei ematen diegun tratu justu eta berdintasunezkoan (Butler, 2020:54-55). Gizarte indarkeria mota izugarrienak inplizituki edo esplizituki desberdintasunarekin konprometituta daude, pertsona bat, polizia bat, legegile bat edo talde bat indarkeria egoera jakin batean erabili ala ez pentsatzen ari denean, beste pertsona baten bizitzaren balioari buruzko erabaki bat hartzen ari da. Indarkeria planifikatzen dutenak bizitza batzuk balio gutxiagokoak balira bezala tratatzen diren mundu batean bizi dira. Horrela, bada, esparru horretan, bizitzak balio bereizgarri baten eramaile gisa ulertzen dira, eta erabaki bat hartzen dute. Erabaki horren bidez, bizitza horri bizitza gisa daramaten balioa kentzea bilatzen da (Butler, 2020:55-56). Pertsona bat estatus horren parte bada, interpelatua sentituko da. Era honetan, bere

³ Negargarritasun bezala itzuli egin dugu Butlerren *llorabilidad* kontzeptua

bizitzak garrantzia duela jakingo du, bere bizitza galtzeak axola izango lukeela. Zure gorputza bizitzeko eta aurrera egiteko aukera izan behar duen gorputz bat bezala ikustea ezinbesteko elementua da, baita aurrera egiteko gorputzaren prekaritatearen minimizazioa ematea ere (ibidem).

4.4. Integrazioa

Helmugako lurraldera iristea lortzen duten pertsona hauek izan ditzaketen zailtasunekin jarraitu aurretik, garrantzitsua da integrazio kontzeptua definitzea; izan ere, migrazioari buruz hitz egiten denean, integrazioa da gehien erabiltzen den kontzeptuetariko bat. Integrazioa helmugako gizartean bertako populazioaren eta immigrazioaren artean izaten den harremanari deritzo. Hala ere, ez dago definizio bakar bat eta honen ondorioz, lurralde bakoitzak berea sortzen du. Honek integrazio eredu desberdinak egotea eragiten du; hala nola, asimilazioa (nagusiena), melting pot eta kultur aniztasuna. Dena den, lurralde guztiek integrazio kontzeptuari dagokionez, elementu komun bat partekatzen dute, integrazio maila edo gradua, alegia. Honen neurketa etorri den pertsonak tokiko biztanleriarekin zenbateko antza duen aztertuz egiten da (Moreno eta Aierdi, 2015:45).

Integrazio kontzeptua abiapuntu izanik Wong eta Solomonek integrazio komunitario kontzeptua adierazi zuten. Honek dimentsio ezberdinak barnebiltzen ditu; hala nola, integrazio fisikoa: baliabideen erabilera eta komunitateko eginkizunetan parte hartzea; integrazio soziala: komunitateko beste kideekin interakzio eta konpromisoa; eta integrazio psikologikoa: pertenezia sentimendua garatzea (Wong eta Solomon, 2002 hemen aipatua: Huarte, 2019:7). Hiru dimentsio horiei beste dimentsio bat gehitzen diete Ager eta Strangek, egokitze instituzionalarena, alegia. Hau errefuxiatuekin harremana duten instituzio eta erakundeek beren beharrak aitortu eta hauetara egokitzean datza; hala nola, dokumentazio formala lortzeko eskuragarritasuna edo interpretazio zerbitzuen beharra (Ager eta Strang, 2008 hemen aipatua: Huarte, 2019:7).

4.5. Migrazio prozesua

4.5.1. Zailtasunak

Zailtasunetara bueltatuz, *Medecins Sans Frontiers* erakundeak 2016. urtean egindako ikerketan etorkinek migrazio ondorengo bizitzan izan ditzaketan zailtasunak zerrendatu zirela azalduko dugu. Zailtasun horien artean honako hauek topatu ditzakegu: etorkizunari bedurra eta zalantzagarritasun sentimendua, gatazkak migrazio zentroetan, asilo eskaera ukatzearen beldurra, utzikeria sentimendua, integratuta sentitzeko zailtasuna, eguneroko egitekoen falta, bakardade eta aspertze sentazioa, eta gradu baxuagoan, injustizia eta gertaerak kontrolatzeko gaitasun ezaren sentimendua. Honetaz gain, ikerketaren arabera migrazio bidaian zehar bizitzako zailtasunek estres post traumatiko eta depresio motako nahasteak garatzea ekar dezakete (Medecins Sans Frontiers, 2016; hemen aipatua: Huarte, 2019:5).

Instituto de Derechos Humanos Pedro Arrupe hezkuntza, enplegua, etxebizitza eta estatus sozial eta laboralari arreta eskaintzen die. Honek errefuxiatuek hezkuntza arloan, tituluen homologazioa eta formakuntza zikloetara sartzeko dituzten oztupoak azpimarratzen ditu, baita etxebizitza topatzeko ere. Enpleguan zentratuz, garrantzitsua da aipatzea errefuxiatuak prekarietate egoeran bizi direla; izan ere, kualifikazio baxuko lanak haiei egotzen zaizkie, haien formakuntza akademikoa kontutan izan barik. Lan fisikoago eta gogorragoa eskatzen duten lanen hutsunea etorkinek betetzen dute. Horrez gain, aurrera egiteko aukera murrizak izaten dituzte, ezegonkortasuna jasaten duten bitartean (Huarte, 2019; Aierdi eta Moreno, 2015).

4.5.2. Kapital soziala eta immigranteen elkarreak

Ahaidetasunean, adiskidetasunean eta lotura komunitarioetan oinarritzen diren sareak edota kapital soziala⁴ oso garrantzitsuak dira migrazio prozesuetan; izan ere, hauei

⁴ Kapital soziala: Farren aburuz, elkarte, jarduera edo harremanen sare bat da, zeinak pertsonak komunitate gisa artikulatzen dituen zenbait arau eta gaitasunen bidez, batez ere konfiantzaren bidez. Hauek funtsezkoak

esker migratzaileak babes ekonomikoa eta informazioa eskura ditzake. Kapital sozialaren kasuan, etnia eta erlijioa azpimarratzea garrantzia handikoa da. Azken honek paper garrantzitsua jokatzen du indar babesle eta orientatzaile gisa Jacqueline Haganen aburuz; izan ere, honen aburuz, fedeak migratzaileei laguntzen die bidean zehar topatzen dituzten trauma eta ziurgabetasunei aurre egiten (Khosravi, 2010). Gainera, migratzaile bakoitzak bere sarea sortzen eta loturak indartzen ditu, prozesua hein batean erraztuz. Migrazioarekin lotutako erabakietan eragina duten gizarte harremanek eta faktore psikologikoen migrazioen norabidea zehaztu ohi dute, baita horien irismena ere. Sare horiek helmugako herrialdea zehazten dute bereziki (ibidem).

Kapital sozialean zentratuz, esan beharra dago immigranteen elkarteak honen elementu zentralak direla. Gainera, espazio hauek babes gune garrantzitsuak dira migrazio prozesuetan, baita krisiek sortzen dituzten oztupoak gainditzeko ere (Vásquez, 2021). Hala ere, kapital sozialaren ikuspegiak elkartearen lidergoei erreparatzen die. Elkarteak liderrek defendatzen dutenaren menpe egoten dira; izan ere, elkarte askok ez dute beren kide aktiboenak baino giza kapital handiagorik (Morión eta Aboussi, 2016 hemen aipatua: Ferrás eta Martín, 2019:184). Kapital sozialari dagokionez, buruzagiek zenbat eta harreman gehiago izan orduan eta eragin politiko handiagoa izango dute haien elkarteek (Morales eta Ramiro, 2011 hemen aipatua: Ferrás eta Martín, 2019:184).

Liderren profila, kapital handiko eta jatorrizko herrialdeetan elkarte zein politika militantziaren esperientzia handia duten pertsonen osatzen dute (Manaset eta Santacreu, 2010 hemen aipatua: Ferrás eta Martín:184). Hala ere, Aparicio eta Tornosek definizio hau osatzen dute. Hauen esanetan elkartearen jatorrizko pertsonen, Espainiako Estatuan luzaro bizi direnen, goi mailako ikasketa dutenek, nazionalitatea dutenek edo

dira gizarte zibilerako eta ondasunak edo ekintza kolektiboak ekoizteko (Farr, 2004 hemen aipatua: Vásquez, 2021:4).

nazionalitatea duten pertsonekin dabilzatenek eta beti ordezkatu nahi den kolektiboak osatzen dute (Aparicio eta Tornos, 2010 hemen aipatua: ibidem).

Elkartek efektu edo ondorio ezberdinak izan ditzakete. Alde batetik, esparru publikoan eman daitezkeenak, Warrenen aburuz, hiru motatakoak izan daitezke; komunikazio publikoa eta deliberamendua, ezberdinen ordezkaritza eta komunitatearen ordezkaritza (Warren, 2001 hemen aipatua: Vásquez, 2021:4). Beraz, esparru publikoa iritzi publikoa eratzeko gune bat da. Bertan, sare komunitarioa sartzten da, komunikazio publikorako gizarte azpiegitura errazten eta sortzen duena. Esparru hau merkatutik eta estatutik bananduta dago (ibidem). Beraz, gizarte kolektiboek merkatua zein estatua gidatu behar dute, baina estatuak zein merkatuak rol zehatzak dituzte. Era honetan, tentsioak sortzen dira; izan ere, estatuak saiatzen dira nazioz gairikoa gizarte eremu berriak egituratzen, migrazioa kontrolatzeko modu gisan edo *remesak*⁵ gehiago aprobetxatzeko (Lacomba eta Cloquell, 2017:47). Beraz, erakundeek haien eginkizuna mugatzen dute jasotzen dituzten diru laguntzak edo eskuratzen dituzten parte hartzeko gune instituzionalak kontuan harturik (Martín eta Pérez, 2004 hemen aipatua: Ferrás eta Martín, 2019:182).

Bigarren efektuan zentratuz, minorien interesak defendatzeko baliagarriak direla esan beharra dago, eragin politiko, ekonomiko edota kultural eskasa baitute sektore batzuek. Era honetan, prozesu politikoan eragin ezin duten arren, haien ordezkari politikoek bitartez, beste presio baliabide sinboliko batzuk baliatu ditzakete; hala nola, protestak, desobediencia zibila edo arte adierazpenak (Warren, 2001 hemen aipatua: Vásquez, 2021:5). Izan ere, demokrazia parlamentarioan badago hitz egiten duen subjektu bat, demokraziaren egituren barruan leku aitortu bat duena. Baina, aldi berean, badira entzuten ez diren subjektuak, ez direlako hala aitortzen, eta haien hizkuntza ez delako beti hizkuntza gisa aitortzen. Zarata bihurtu dira Legebiltzarraren atarian, ezarritako erakunde demokratikoen atarian, alegia (Butler, 2020).

⁵ Remesa: diru bidalketa

Bestalde, esparru instituzionalean edo estatukoan ematen diren efektuak ekintza kolektiboek sorturikoak dira; izan ere, hauek eskaerak gobernuaren erantzun bilakatu nahi dituzte. Prozesu honek bost urrats ditu Warrenen aburuz; ordezkartza, erresistentzia, subsidiariorotasuna, koordinazioa eta lankidetzeta eta legitimazio politikoa (Warren, 2001 hemen aipatua: Vásquez, 2021:5). Elkarrekin sistema politikotik baztertuak izan diren taldeentzako presio alternatibak dira. Elkarrekin plataformen bidez, erabakiak hartzerakoan esku hartzeko aukera dute, sistema politikoak eta eragiteko ahalmena duten talde konbentzionalek aintzat hartzen ez dituzten gaiak agenda politikoan sartzeko (ibidem).

Ordezkartza eta erresistentzia urratsetan zentratuz, garrantzitsua da Werrenek hauen inguruan egindako azalpena azpimarratzea; izan ere, bi hauek gobernuak presionatzeko bidea dira, batez ere baztertutako taldeen interesak aurrera eramane daitezke (ibidem). Hala ere, elkarrekin zeregina ez da ordezkartzara mugatzen, zerbitzuak eskaini baititzakete, batzuk erakunde publikoen ardura izan arren. Beraz, jarduera subsidiario baten aurrean gaude. Horrela, erakundeek zerbitzuak kudea ditzakete, Estatuaren ekintza osatuz (Vásquez, 2021:5-6). Alabaina, estatuaren menpe daude alor ekonomikoari dagokionez, eta, beraz, autonomia galtzen dute honen aurrean (Vásquez, 2021:7). Toralek, aldiz, autonomia defendatzen du. Hau da, Toralentzat “gizarte zibila” aktore autonomoa da, Estatu zein merkatutik aparte dagoena. Hala ere, botere harremanen barnean kokatzen du aktorea, legitimitatea eta gizarte balioa berenganatze aldera (Toral, 2010 hemen aipatua: ibidem).

Azkenik, koordinazioa eta lankidetzeta praktika subsidiarioaren osagarri dira, baita elkarrekin sarearen lana indartzeko zein estatuaren ekintza mankomunatu egiteko ere (Vásquez, 2021:5-6).

Garrantzitsua da aipatzea elkarrekin zibilak beren kideak erakundeko kide izateko akordio aske eta borondatezkoan oinarritzen direla. Akordio hori formalki eratuta egon daitezke, edo kideen koordinaziotik abiatuta jardun dezake informalki (Vásquez, 2021:3). Weberren aburuz elkarrekin alderdien arteko akordioz eratutako taldea da, estatutuaren araututa dagoena. Libreki afiliatu direnei bakarrik aplikatzen zaie baliozkotasuna (Weber, 1992 hemen aipatua: ibidem). Kasu horretan, herritarrak soziabilitatearen lehen zirkuluan

nahitaez ez dauden beste batzuekin lotzen dira, haien interesak eta sustatzeko asmoa oinarri hartuta. Gizabanakoek harremanak ezartzen dituzte interes berberak sustatu nahi dituzten beste batzuekin, soziabilitate tradizionalako loturak gaindituz; hala nola, familia loturak, bigarren mailako sozializazioa aurrera eramateko. Horrela, elkarteak ondasun edo interes antzekoak bilatzen dituzten gizabanako talde bat bildu eta kohesionatzen duten erakundeak dira, gizarte zibilaren adierazpen antolatua izanik. Borondatezko eta ordaindu gabeko kide izatea dute ezaugarri. Erakunde horiek autogobernu baten pean kudeatzen dira, eta autogobernu horretan kideek erabakitzen dituzte elkartearen helburuak eta kide izateko baldintzak (Vásquez, 2021). Hala, garrantzitsua da adieraztea, asanbleetan gertatzen den bezala, kideek ez dutela zertan mundu guztia maitatu behar. Nahiz eta elkarrekiko maitasuna ez eman, argi daukate bestearen beharra dutela helburuari eta etsai komunari aurre egiteko (Butler, 2020:30).

Toral sare komunitario eta erakundeen arteko lotura aurkitzen saiatzen da. Era honetan, integrazio modu horizontal ahulak adierazten ditu; izan ere, elkarlana ardatz izan beharko litzateke, lehia izan beharrean. Honela, diru laguntza publikoak, Estatuaren aldetik legitimazioa jasotzea eta integrazio bertikala indartzea bilatzen da (Torral, 2010 hemen aipatua: Ferrás eta Martín: 183). Barne integrazioa ere ahula dela adierazten du; izan ere, erakundeek ordezkatzten duten lurraldearen komunitatearen inplikazio maila baxua da (ibidem).

Gizarte mailako etorkin erakundeak edo etorkinek osatzen ez dituztenak, baita hiritarrak indibidualki ere, integrazio prozesuetan osagai garrantzitsua direla ondorioztatzen duten ikerketak ere badaude, kontrako jarrerak baztertzuz. Hauen aburuz, gizarte zibilaren eta GKE-n papera giza eskubideen gainbegiratzearan ezinbestekoa da. Gainera, gobernu mailako instituzioek bete ezin ditzaketen funtzioak ditu (Huarte, 2019:11). Gizarte zibilak ekarpen zehatzak ditu, Europako Kontseiluak zerrendatu dituenak: giza eskubideen urratze indibidualak salatzea; asistentzia zuzena ematea eskubideak urratuta izan dituen pertsonari; presioa sortzea maila nazional, eskualdekoan eta internazionalen lege aldaketak eskatuz; eta populazioaren artean giza eskubideekiko ezagupena eta errespetua sustatzea (Europako Kontseilua, 2017 hemen aipatua: Huarte, 2019:11).

Elkarteen jarduera aurrera eramateko, ezinbestekoa izaten ohi da boluntarioritza edo aktibismo soziala zein politikoa. Hainbat ikerketek estatus ezberdinetako taldeen artean asistentzia ematen dutenen arteko harremana asimetrikoa da; izan ere, laguntza eskaintzen dutenen dominantzia soziala indartzeko tresna da. Era honetan, botere gutxiago duten taldeek askotan estatus altuagoa duten erakundeen asistentzia onartzen duten arren, laguntza horren naturak eta motibazioek harremana baldintzatuko dute. Beraz, eskaintako laguntzak dependentzia egoera ekar lezake; hau da, irtenbideak ematean, hartzailak bere irtenbide propioak bilatu beharrean, elkartetik jasotzen duen asistentziak taldeen arteko ezberdintasuna indartu lezake (Nadler eta Chernyak-Hai, 2014 hemen aipatua: Huarte, 2019:11-12).

Autore batzuen aburuz, kutsu paternalista sumatzen da elkarteetan; izan ere, elkarteak sortzen dira, interes kolektiboak, hau da, nazionalitate jakin bateko etorkinen integrazioa bultzatzea, sustapen sozial eta profesionalerako banakako helburuekin nahastuz, baita autoenplegurako formula gisa ere. Era honetan, ia aseguratuta dagoen publiko batekin negozio bat irekitzen dute (Aparicio eta Tornos, 2010 hemen aipatua: Ferrás eta Martín, 2019:184-185). Lerro berean, Veredasek ikuspuntu kritiko bat baliatzen du hau definitzeko; izan ere, honen ustetan, elkarteetan nolabaiteko kazikismoa dago, arduradunen sustapen pertsonalerako leku gisa (Veredas, 2004 hemen aipatua: Ferrás eta Martín, 2019:185).

Euskal Herrian herritarren artean harrera duin bat eskaintzeko sareak eraiki dira. Garrantzitsua da aipatzea sare komunitarioaren parte hartzeari elkartasun kontzeptua oso lotuta dagoela (Huarte, 2019:12). Sareak "ahaidetasun, adiskidetasun eta jatorri partekatuko komunitatearen bidez migratzaileak, migratzaile ohiak eta migratzaile ez direnak jatorrizko eta helmugako eremuan lotzen dituzten pertsonen arteko lotura-multzoak" bezala definitu izan dira (Recaño, 2002). Euskal Herrian sortu diren sare horien artean, Irunen Irungo Harrera Sarea, Donostin Hiritarron Harrera Sarea eta txoko ezberdinetan Ongi Etorri Errefuxiatuak izango genituzke, azken honen egoitza Bilbon egonik. Gipuzkoako harrera sareen kasuan, 2018tik dihardute lanean, Espainiako hegoaldeetik iristen diren etorkin eta errefuxiatuen beharrak asetzeko, instituzioen baliabideak urriak baitira. OEEren kasuan, herri mugimendu eta herritarrek errefuxiatuei

akonpainamendua eta laguntza eskaintzen dizkiete, baita bertan gelditzen direnei integrazio prozesuan lagundu ere (Barcenilla, 2018 hemen aipatua: Huarte, 2019:12).

Afrika, Asia eta Ekialde Hurbileko leku ezberdinetatik etorritako errefuxiatu olatuak hainbat komunitateetako demografia zein bizitza sozial eta politikoa eraldatu ditu (Bose, 2018; Coughlan, Stam, eta Kingston, 2016 hemen aipatua: Huarte, 2019:12-13). Etorrerek erronka ezberdinak sortu dituzte harrera komunitate, hizkuntza, arau kultural eta tradizio erlijiosoetan. Era honetan, gaitasun eta espektatiba berriak iritsi dira haiekin batera (Huarte, 2019:13). Gainera, hiri txikietara heltzen direnek haien beharrak asetzeko prest ez dagoen testuinguru batekin topo egiten dute. Beraz, errefuxiatuen beharren eta harrera hirien gaitasun eta baliabideen arteko desdoikuntzak, integrazioan zein gizarte zerbitzuetan presioa areagotu dezake (Lee, Choi, Proulx, eta Cornwell, 2015 hemen aipatua: Huarte, 2019:12-13).

Aipaturiko erronka horiez gain, Migrazioaren Nazioarteko erakundeak beste erronka batzuk identifikatu zituen, hiriek errefuxiatu eta etorkinen aurrean topatzen dituztenak, alegia. Horien artean honako hauek agertzen dira: hizkuntzaren muga; muga legal eta administratiboak; sare sozialetara irisgarritasun baxua, lekuko testuinguru sozialaren ezagupen urria; lan merkatura egokitzen ez diren gaitasunak; eta diskriminazioa, xenofobia eta errepresentazio eza. Horrez gain, hiri eta gobernu lokalek etxebizitza, hezkuntza eta enplegua seinalatzen dituzte zailtasun nagusi gisa. Errefuxiatuen integrazio sozial eta kulturala sustatzea garrantzia handiko erronka da. Gainera, hirietako administrazioek legalki, materialki zein finantziarioki nazio mailako administrazioaren menpe daude (UNESCO, 2016 hemen aipatua: ibidem).

Harrera egiten duten guztien esperientziek lankidetzeta eta kolaborazio estrategien garrantzia azpimarratu dute, gobernu kanpoko edo gizarte zibileko erakundeekin, zein sektore pribatu eta boluntarioekin (Huarte, 2019:13). Alabaina, autore ezberdinek honek zalantzak zein oztopoak sortu dituela adierazi dute; izan ere, hauek zalantzan jarri dute irabazi asmorik gabeko erakundeen prestakuntza eta entrenamendua (Sawtell, Dickson-Swift, eta Verrinder, 2010 hemen aipatua: ibidem) eta lan egiten duten populazio anitzaren beharrei erantzuteko baliabide nahikorik izatea (Hume eta Hardwick, 2005 hemen aipatua: Huarte, 2019:13). Aktore askoren parte hartzeak aktoreen koordinazioa

oztopatzen duela adierazten dute Fozdar eta Hartleyek (Forzdar eta Hartley, 2013:ibidem). Erronka garrantzitsuenetariko bat gainditzeko, ezinbestekoa da komunitateko kideek etorkin eta errefuxiatuekiko dituzten jarrerak aldatzea, bazterkeria eta diskriminazioa ezabatuz (Fozdar eta Hartley, 2013; UNCHR, 2013:ibidem).

4.6. Kolonialismoa eta dekolonialismoa

Kolonialtasunaz hitz egiten dugunean munduko botere kapitalistaren patroia osatzen duten elementu espezifikotako baten inguruan ari gara. Hau da, kolonialismoak harreman politiko eta ekonomikoa adierazten du, non herri baten subiranotasuna beste herri edo nazio baten boterean datzan, eta horrek inperio bihurtzen du nazio hori (Quijano, 2007:93; Maldonado-Torres, 2007:131). Garrantzitsua da azpimarratzea kolonialtasunak eta kolonialismoak ez dutela gauza bera esan nahi. Kolonialitatea kolonialismo modernoaren ondorioz sortu zen botere eredu bati dagokio, baina bi herri edo nazioen arteko botere harreman formalera mugatu beharrean, lana, ezagutza, autoritatea eta subjektiboen arteko harremanak munduko merkatu kapitalistaren eta arrazaren ideien bidez egituratzen diren moduari dagokio (Maldonado-Torres, 2007:131). Kolonialismoa kolonialitatearen aurretik dagoen arren, kolonialtasunak kolonialismoaren aurretik irauten du. Kolonialtasuna ez da soilik edozein harreman kolonialen emaitza. Testuinguru sozio historiko batean azaleratzen da, bereziki Ameriketako konkistarena. Enpresa kolonial masibo horren testuinguruan, gizateriaren historian kapitalismoa baino anbiziotsuena izan zen, lehendik zegoen harreman ekonomikoa eta soziala, mendekotasun eta menderatzeko moduekin uztartu zen, eta horiek funtsezkoak izan ziren Ameriketako subjektu kolonizatuen gaineko kontrola mantentzeko eta justifikatzeko (ibidem). Kolonialtasuna eta kolonialismo ezberdindu behar diren arren, biak elkar lotuta daudela adierazi beharra dago. Kolonialismoa, zehazki, menderatze eta ustiatze egitura bati dagokio. Egitura horretan, aginte politikoaren, ekoizpen baliabideen eta populazio jakin baten lanaren kontrolak nortasun desberdineko beste egitura bat du, eta haren egoitza nagusiak beste lurralde jurisdikzio batean daude. Baina ez du zertan botere harreman arrazistatik inplikatu behar (Quijano, 2007:93). Kolonialismoa kolonialtasuna baino zaharragoa den arren, kolonialtasunak azken 500 urteetan sakonagoa eta iraunkorragoa dela demostratu du. Casanovak eta Stavenhagenek proposatu zuten barne kolonialismo

deitzea estatu nazio baten barruan jarduten duen botere arrazista/etnizistari (Casanova, 1965; Stavenhagen, 1965 hemen aipatua: Quijano, 2007:93). Baina horrek zentzua izango luke estatu-nazioari buruzko ikuspegi eurozentrikotik soilik (ibidem).

Quijano eta Dusselen arabera, eurozentrismoa jarrera koloniala da ezagutzaren aurrean, eta zentro-periferia harremanen eta etnia/arraza hierarkien prozesuarekin batera egituratzen da. Bizitzaren arlo askotan europar ezagutzari emandako nagusitasuna boterearen kolonialitatearen alderdi garrantzitsu bat izan zen mundu-sisteman. Mendeko ezagutzak baztertuak, isilduak eta ezezagunak izan ziren. Ilustraziotik, XVIII. mendean, isiltasun hori legitimatu egin zen ezagutza horiek giza ezagutzaren aro mitiko, behe, premoderno eta preziatua irudikatzen zutela pentsatuz. Europako elite zientifiko eta filosofikoak sortutako ezagutza bakarrik jotzen zen egiazko ezagutza gisa, bere espazio-eta denbora-baldintzapenetatik abstrakzioa egiteko gai baitzen behaketa-plataforma neutro batean kokatzeko. Beraz, zero puntua izan zen ezagutza zientifikoaren azken ideala (Castro-Gómez, 2005 hemen aipatua: Castro-Gómez eta Grosfoguel, 2007:20).

Gizarte-klaseen ideia pentsamendu eurozentrikoan landua da, XVIII. mendeko eta XIX. mendeko urteen artean. Garai horretatik Europa kapitalismoaren erdigunea bezala ulertua izan da, dualtasun historiko bat finkatuz: Europa (batez ere Europa erdialdea eta Ingalaterra) eta *ez-Europa*. Dualtasun honen ondorioz, *ez-Europa* edo Europa ez den hori iraganarekin lotzen zen, nahiz eta denbora lerro berean egon. Beraz, Europa osatzen ez zuten lurraldeek “iraganetik” Europara salto egin nahiko lukete. *Ez-Europan*, XIX. mendean, lanaren soldatarik gabeko forma guztiak zeuden. Baina, Saint Simonetik gaur arte, eurozentrismoak iragan aurre-kapitalista baino ez du ikusten. Hau da, klase sozial horiek aurre-kapitalistak dira, edo ez dira existitzen. *Ez-Europan* arraza-identitate ez-europarrak edo ez-zuriak finkatu ziren. Baina horiek, europarren artean adina edo generoa bezala, europarren eta *ez-europarren* arteko botere desberdintasun “naturalei” dagozkie. *Europan*, aginte erakunde modernoak prestatzen ari dira, edo dagoeneko osatuta daude: estatu-nazio modernoak eta haien identitateak. Baina *ez-Europan* tribuak eta etniak baino ez dira hautematen, iragan aurre-moderno bezala. Hauek etorkizunean estatu-nazioek ordezkatuko baitituzte, *Europan* bezala. Europa zibilizatua da. *Ez-Europa*, aldiz, primitiboa da. Subjektu arrazionala europarra da. Europa ez dena ezagutu beharreko

objektua da (Quijano, 2007:113). Laburbilduz, modernitateak kapitalismoaren gorakadak eta sendotzeak baldintzatutako izaera jakin bateko eraikuntza berezi bat dakar, gizartearen eta naturaren harremanen forma espezifiko gisa. Eraikuntza hau XVI. mendean hasi zen, mundu-sistemaren sorrerarekin batera; Europa jakintza/botere sare planetario baten "erdigune" bihurtu zenean, alegia (Cajigas-Rotundo, 2007:170).

Quijanoren aburuz, boterea esplotazioko/dominazioko/gatazkako gizarte-harremanen espazio eta sare bat da, funtsean, honako gizarte-existentziako eremu hauen kontrolari buruzko eztabaidaren arabera artikulatuak: (1) lana eta haren produktuak; (2) aurrekoarekin lotuta, naturaren eta haren ekoizpen-baliabideak; (3) sexua, haren produktuak eta espeziearen ugalketa; (4) subjektibotasuna eta haren produktu materialak eta intersubjektiboak, horien ezagutza barne; (5) autoritatea eta haren tresnak, bereziki hertsapenekoak, gizarte-harremanen eredu horren erreprodukzioa ziurtatzeko eta haren aldaketak arautzeko (Quijano, 2007:96). Azken bi mendeetan, ordea, eta subjektibotasun- eta genero-gaiak eztabaidan sartu arte, begirada eurozentrikoak ezin izan ditu esparru horiek guztiak boterearen konfigurazioan hauteman, ideien bi alderdi nagusiren arteko konfrontazioak menderatu dituelako: bata hegemonikoa: liberalismoa; eta bestea mendekoa: materialismo historikoa (ibidem).

Boterearen kolonialtasunak indiarren arimen inguruko eztabaidan du abiapuntua Quijanoren esanetan; hau da, indiarrek arimarik zuten ala ez eztabaidan. Nortasun berriak Ameriketako kolonizazio europarraren testuinguruan sortu ziren: europarra, zuria, indiarra, beltza eta mestizoa, besteak beste. Sailkapen sozial mota horren ezaugarri bereizgarri bat da subjektuen arteko harremana ez dela horizontala, bertikala baizik. Hau da, identitate batzuek besteen gainetik daudela adierazten dute. Eta nagusitasun maila hori justifikatzen da kasuan kasuko identitateei esleitutako gizatasun mailei dagokienez. Oro har, norberaren larruazala zenbat eta argiagoa izan, orduan eta hurbilago egongo da gizatasun osoaren ideala irudikatzetik (Maldonado-Torres, 2007:132). Konkistatzaileen ikuspuntutik, munduaren mapa berriak sortzeko balio izan zuen; geografiak gauzen ikuspegi hori sortzen jarraitu zuen. Mundu osoa logika honen argitan ikusia izan zen. Hauxe da "kolonialtasun globalaren" hasiera (ibidem).

Munduko kapitalismoaren aurretik ezagututako historian egiazta daiteke, botere-harremanetan, espeziearen zenbait ezaugarri paper nagusia izan dutela jendearen sailkapen sozialean: sexua, adina eta lan-indarra dira, zalantzarik gabe, antzinakoenak. Amerika konkistatu zenetik fenotipoa gehitu zen. Quijanoren aburuz, sexua eta adina ezaugarri biologiko diferentzialak dira, nahiz eta ustiapen/menderatze/gatazka harremanetan duten lekua atributu horiek gizarte-kategoria gisa lantzearekin lotuta dagoen. Aldiz, lan-indarra eta fenotipoa ez dira ezaugarri biologiko diferentzialak (Quijano, 2007:118). Larruazalaren koloreak, ilearen formak eta koloreak, begiek, sudurraren formak eta tamainak -beste ezaugarri batzuen artean- ez dute inolako ondoriorik pertsonaren egitura biologikoan, eta are gutxiago gaitasun historikoetan. Era berean, esku-langilea edo intelektuala izateak ez du loturarik egitura biologikoarekin. Bestela esanda, elementu horietako bakoitzak sailkapen sozialean, hau da, boterearen banaketan, jokatzeko duen rola ez du zerikusirik biologiarekin, ezta naturarekin ere. Zeregin hori gizarte eremuen kontrolaren inguruko eztabaiden emaitza da (ibidem). Irabazleen eta garaituen arteko desberdintasun fenotipikoak «arraza» kategoriaren ekoizpenaren justifikazio gisa erabili dira, nahiz eta dominazio erlazioen ondorio izan (Quijano, 2007:119).

Gerra, konkista eta genozidioa aipatzeak kolonialitatearen funtsezko beste alderdi bat dakar. Kolonialismo modernoaren kondena edo bizitza gisa uler daiteke, esklabutzaren naturalizazioak ezaugarritua. Orain subjektuen eta herrien eraketa biologiko eta ontologikoari dagokionez justifikatzen da, eta ez soilik haien sinesmenei dagokienez. Gerran garaituak direnean gizakiak esklabo bihurtu ahal izatea, Ameriketara, konkistatutako herriak eta, oro har, europarrak ez diren herriak maila apalagoan daudela susmatzen da, eta, beraz, esklabo eta morroi izan behar dute (Maldonado-Torres, 2007:136-138). Gerrak, ordea, ez du soilik etsaia hil eta esklabo bihurtu nahi. Honek sexualitate femeninoari tratua berezia ematen dio, bortxaketa, hain zuzen ere. Kolonialtasuna gauzen ordena bat da, koloretako jendea egoaren behaketa hiltzaile eta bortxatzailearen pean jartzen duena (Maldonado-Torres, 2007:138).

Kontuan izan behar dugu Descartesek egiaren autoekoizpena defendatzen zuela; hau da, subjektuak "Jainkoaren" esanahia hartzen du eta modu isolatuan ezagutza sortzen

du, espazio-denbora eta erlazioak kontuan hartzeari uzten zaiolako. Beraz, ezagutza pribilegio bihurtzen da, arrazializatu gabeko horiek baitira pentsa dezaketanak. Santiago Gómez Castrok "zero puntuko hybris" gisa definitzen du, pertsona despertsonalizatu eta gor egiten baita. Ez da zalantzan jartzen hitz egiteko eta ezagutza sortzeko erabiltzen den lekua. Enrique Dusselek, horren aurrean, begirada kolonialista dela dio, bakarrizketa baten bidez ezagutza sortzen duena izaki inperiala baita, bere kokapen geopolitiko alde batera utziz. Hau kontutan izanik, esan beharra dago kolonizatuak/arrazializatuak gizatasuna galtzen dutela (Grosfoguel, 2007:64-65; Maldonado-Torres, 2007:144-145) .

Jarrera des-kolonialak jarrera natural kolonialarekiko haustura eta errekonozimendu inperialaren dialektika planteatzen ditu, zeinak auresuposatzen baitu subjektu orok gizaki zuriaren errekonozimendua lortu behar duela bere gizatasunaren zentzu osoa hartzeko. Jarrera deskolonialean, subjektuak esklabo-posizioan errekonozimendua bilatzeaz gain, zerbait eskaintzen du. Eskaintza hori beste esklabo bati dagokio. Esklabotik esklaborako mugimendu etikoak paradoxa bat planteatzen du; izan ere, menderatzaileen onarpen dialektika eta subjektu horien berehalako interesen erabateko etendura biltzen du. Horrela, esan genezake, esklabo eta morroiaren onarpenaren dialektikak aurkakotasun erradikalena aurkitzen du esklaboen arteko dohaintzaren eta onarpenaren paradoxan, jarrera ezkoloniarraren ezaugarri baita (Maldonado-Torres, 2007:158).

Bira de-kolonialak, funtsean, subjektu praktikoaren eta ezagutzaren jarrera aldatzea dakar, eta, ondoren, ideia de-kolonizazioaren proiektura aldatzea. Biraketa des-koloniala eta des-kolonizazioaren ideia, kolonizazio modernoa bezain zaharrak dira. Hauek konkistatutako subjektuen erraietako erantzunean aurkitzen dituzte sustraiak, konkistatuen ezagutzak, izaerak eta gizatasuna bera ere baliogabetzen dituen konkistaren muturreko bortizkeriaren aurrean. Kolonialismoaren biraketaren printzipioak eta de-kolonizazioaren ideia kolonizatuaren "garrasiaren" gainean oinarritzen dira, gerra eta heriotza bere bizitzako elementu arrunt bihurtzen direnean, hein batean heriotzaren munduan edo bizitzaren munduan. De-kolonizazioaren ideiak ere zalantza edo eszeptizismoa adierazten du proiektu kolonialari dagokionez. Zalantza dekoloniala kolonizazioaren funtsezko zatia da (Maldonado-Torres, 2007:159)

Biraketa de-koloniala, lehenik eta behin, kolonizatutako subjektuen praktikan eta ezagutza-moduetan aurkitzen den ikuspegiaren eta jarreraren aldaketa da, kolonizazioaren hasieratik bertatik, eta, bigarrenik, modernitatearen auresuposizioak eta inplikazioak sistematikoki eta globalki eraldatzeko proiektu bat, elkarrizketan ari diren hainbat subjektuk onartua (Maldonado-Torres, 2007:160)

Kolonialismoari buruzko hitzaldian, de-kolonizazioaren ideia kolonizazio-proiektu bihurtzea planteatzen da, eta horrek esplizitu egiten du joera de-koloniala. Bira de-kolonialak eta de-kolonizazioak, proiektu gisa, ez dute kolonizazio-harreman formalen amaiera soilik biltzen, baizik eta boterearen, jakintzaren eta izatearen kolonialitatearen legatuari eta etengabeko produkzioari erabateko aurkakotasuna ematea. Gerraren paradigma modernoari amaiera ematea da kontua; horrek esan nahi du zuzeneko norgehiagoka dagoela Europako modernitateak sortu edo indartu zituen arraza, genero eta sexualitateko hierarkiekin, planetako herri askoren konkista eta esklabotza prozesuan. (Maldonado-Torres, 2007:161).

4.7. Ukrainako krisiak eragindako harrera aldaketak

Gerra testuinguru ezberdinak daude indarrean gaur egun, aspaldi hasi zirenak, alegia. Hala nola, Siriakoa, Yemengoa, Afganistangoa, Sahara-Marokokoa... Baina gaur egun oihartzun handiena izaten ari dena Ukrainakoa da. Beraz, hurrengo lerroetan honen inguruan jardungo dugu, baita honek ekarritako harrera moduen inguruan ere.

Errusia-Ukraina gerra Errusiako Federazioaren eta Ukrainaren arteko gerra bat da, gaur egun abian dagoena eta 2021-2022ko krisi errusiar-ukrainarraren garai tirabiratsuaaren ondoren areagotu zena. Gatazka horrek, azkenean, 2022ko otsailaren 24an Ukrainaren inbasio errusiarra ekarri zuen, nahiz eta konfrontazio hori 2014tik garatu den. Gainera hainbat etapa izan ditu; hala nola, Krimeak Errusiarekin bat egin izana eta Dombaseko gerra, urte horretan bertan hasi zena eta oraindik aurrera jarraitzen duena (Guerra ruso-ucraniana, s.f.).

Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerra luzearen ondorioz hasi zen krisia. 2021eko abenduan, Errusiak bi itun-zirriborro aurkeztu zituen, "Segurtasun-bermeak" deiturikoen


eskaerak jasotzen zituztenak, baita juridikoki loteslea zen promesa bat ere, Ukrainak Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundearekin (NATO) bat egingo ez zuela, hain zuzen ere. Horrez gain, tropak eta NATOko talde militarra Ekialdeko Europan murrizteko bermea eskatzen zuen. Eskaera horiek bete ezean, Errusiak erantzun militar bat emango zuela adierazi zuen. Era honetan, NATOk eskaera horiei uko egin zien (ibidem).

Errusiak, beraz, erantzun militarari ekin zion, Donetsk eta Lugansk egun batzuk lehenago independente deklaratu ostean. Erantzun militar horren atzean, Putinen hitzetan, Ukraina desmilitarizatzea eta desnazifikatzea dago (ibidem).

Testuinguru honek (modu labur batean azalduta) pertsona ugari behartu ditu haien lurraldea uztera, 5 milioi baino gehiago, alegia. Gainera, 7,7 milioi barne-desplazatu baino gehiago daude, hau da, beren etxeak utzi dituzten eta orain Ukrainako beste toki batzuetan bizi diren pertsonak (DatosRTVE-tik eskuratuta). Gehiengoa Poloniara doan arren, badaude beste leku batzuk ere; hala nola, Errumania, Errusia, Hungria, Moldavia, Eslovaquia eta Bielorusia (ikus 1.grafikoa). Polonian zentratuz, hau hipokrita gisa definitu izan da; izan ere, beste etorkin batzuei atek itxi zaizkien bitartean, ukrainakoei besoak zabalik hartu dituzte. Ane Irabazal kazetariaren hitzetan: krisi hau baino hilabete batzuk lehenago “Polonia eta Bielorusia arteko mugan, Poloniak, orain ukrainiako errefuxiatuei atek ireki dizkiena besoak irekita, errefuxiatuak abandonatu ditu, ez ditu Europar Batasunera sartzen utzi eta basoetatik gesia apurtuz gurutzatzea lortzen dutenak hil egiten dira, hotzez edo abandonuaren ondorioz. Ez dituelako nahi. Eta horiek dira Iraketik, Siriatic eta Afganistanetik iristen diren errefuxiatuak.” (Irazabal, 2022. Ur Handitan programatik eskuratua)⁶.

⁶ Baleuko (ekoizlea) eta Ainhoa Zabarte (zuzendaria) (2022). *Gerran*. Ur handitan. EITB. Eskuragarri hemen: <https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/ur-handitan/>

1. Grafikoa: barne mugimenduak eta errefuxiatuak Errusiaren inbasioaren geroztik



Ekoizpena: DatosRTVE (2022)

Iturria: Alto Comisionado de Naciones Unidas para los Refugiados (ACNUR) y OIM para desplazados internos, (2022). DatosRTVEtik eskuratuta.

Estatu Espainiarrean zentratuz, 134.000 errefuxiatu ukrainar iritsi direla Espainiara esan beharra dago eta 64.000k aldi baterako babesa jaso dutela. Errefuxiatuen % 72 inguru emakumeak dira eta % 37 18 urtetik beherakoak; izan ere, gizonak (senarrak, aitak, nebak) euren herrialdea defendatzen ari dira. Batez beste 28 urte dituzte, eta "oso pertsona gaituak" dira, gobernuburuaren arabera; izan ere, unibertsitateko goi-mailako tituludunen % 60 eta Lanbide Heziketako tituludunen % 20 dira (DatosRTVEtik eskuratuta).

Lau harrera zentro ireki dituzte Espainian; Madrilen, Bartzelonan, Alicanten eta Malagan, hain zuzen ere. Horrez gain, Madrilen, Malagan, Murtzian eta Bartzelonan familia espainiarrek errefuxiatuak hartzeko proiektu pilotua abiatu da. Gainera, Sanchezek, Espainiako presidentek, haur ukrainar asko eskolatuta daudela, errefuxiatuak osasun sisteman "erabat integratuta" daudela eta guztia "denbora errekorrean eta eredugarrian" egiten ari direla azpimarratu du. Honen eraginez, herrialde ezezagunetara iristean ziurgabetasun kopuruak behera egiten du. Sanchezen hitzetan: "Gure artean dauden denbora euren sorterrian eta etxean bezala sentitzea nahi dugu" (DatosRTVEtik eskuratuta). Gizarte Segurantzza eta Migrazio ministroak ere bere

oniritzia eman du. Honen hitzetan: zentro horiek "Espainiako gizarteak Ukrainarekin duen elkartasuna sinbolizatzen dute", eta "bizileku- eta lan-baimena berehala emanegiz egiten dute" (ibidem).

Beraz, aurreko parrafoetan ikusi dugun bezala, krisi honek aldaketak ekarri ditu. Hala nola, Ukrainatik datozeinei egoera erregularizatzeko aukera eman zaie 24 ordutan⁷, taxiak ukraniarren bila⁸, harrera beroa txaloen artean...

Instituzioen eta gizartearen aldetik aldaketa hauek ematen ziren bitartean, beste batzuek haien bizitza arriskatzen zuten itsasoan. Honen adibide (beste batzuen artean) martxoaren 12an Bidasoa ibaian gertaturikoa da, hiru lagun saiatu ziren ibaia zeharkatzen. Saiakera horretan pertsona bat desagertu zen⁹. Egun batzuk beranduago gorpu bat topatu zuten¹⁰. Gainera, erregularizazioa prozesu luze eta zaila da Hegoalde globaleko migratzaileentzat. Hau horrela izanik, prozesua errazte aldera, *Regularización ya mugimendua* sortu da. Sinaduren bilketari ekin diote mundu guztiak bere egoera erregulariza dezan, inolako salbuespenik gabe.

Diskriminazioa ere Ukrainan bertan bizi izan da. Leire Lasaren hitzak gurera ekartzea ezinbestekoa da egindako baieztapena justifikatzeko. Lasaren esanetan

⁷ Sanchez, Gabriela (2022ko martxoaren 9a). Interior activa el sistema para dar papeles “en 24 horas” a los refugiados por la guerra de Ucrania. *ElDiario.es*. Eskuragarri hemen: << https://www.eldiario.es/desalambre/interior-activa-sistema-dar-papeles-24-horas-desplazados-guerra-ucrania_1_8817351.html>>

⁸ Llega a Madrid una caravana de taxis con 135 refugiados ucranianos tras recorrer 6.370 kilómetros (2022ko martxoaren 1^a). *RTVE.es*. Eskuragarri hemen: <https://www.rtve.es/noticias/20220317/caravana-taxis-madrid-ayuda-refugiados-ucranianos/2314360.shtml>

⁹ Bidasoa ibaian desagertuta jarraitzen du pertsona migratzaile batek (2022ko martxoaren 14a). *Gedar*. Eskuragarri hemen: << <https://gedar.eus/aktualitatea/bidasoa-ibaian-desagertuta-jarraitzen-du-pertsona-migratzaile-batek/>>>

¹⁰ Arreseigor, Mikel. [MikelArreseigor]. (2022ko martxoaren 30a). *Hilotz bat topatu dute Bidasoa ibaian, desagertuta zegoen migratzailea izan daiteke!! Administrazio publikoek berehala hartu behar dituzte neurriak, berriro ez gertatzeko.* [Txioa] Twitter. <https://twitter.com/MikelArreseigor/status/1509274076979814409>

“Ukrainatik ihesean doazen atzerritarrek diskriminazioa sufritu dute. Lehentasuna ukrainarrak kanpora ateratzea izan da. Ukrainar pasaporteak ez dutenek gehiago itxaron behar dute, eta besteentzat doakoak diren garraioak ordaindu.”¹¹

Dena den, ukrainar errefuxiatuekiko jarrera aldaketa hau gerta liteke hedabideek zabalduzko mezuen ondorioz izan izana; izan ere, diskurtsoen aldaketa bat eman da krisialdi honetan. 24 orduz krisialdi honen gaineko informazioa zabaldu egin da, beste krisialdi batzuk isilpean mantentzen diren bitartean. Aldi berean, hitzek duten garrantzia azpimarratzea ezinbestekoa da. Izan ere, Europarrak ez direnen adingabeak “mena” bezala ezagutzera ematen dituzte hedabideek. Baina Ukrainakoen kasuan hitz hori “ume” hitzazatik aldatu dute (ikus hurrengo irudia).

1. Argazkia: Ume hitza mena hitzaren ordez



Iturria: del Toro, Marian (2022). Twitterretik berreskuratua¹²


Gizartearen jarrera aldaketa honen atzean hedabideen eragina dagoela esan dugu aurretik. Hau justifikatze aldera Ikuspegiko 2021eko Barometroko grafiko bat baliatuko dugu zeinetan argi ikus daitekeen euskal gizarteko kopuru handi batek (%37,5)

¹¹ Baleuko (ekoizlea) eta Ainhoa Zabarte (zuzendaria) (2022). *Gerran*. Ur handitan. EITB. Eskuragarri hemen: <https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/ur-handitan/>

¹² Del Toro, Marian. [Mariamdeltoro1]. (2022ko martxoaren 9a). *O todos NIÑOS o todos MENAS!!* [Txioa]. Twitter. https://twitter.com/Mariamdeltoro1/status/1501624302319415296?s=20&t=Vj_6dwmYNtLTs_SYiK0pmQ

komunikabideek immigrazioa modu negatiboan tratatzen dutela uste duela (ikus 2.grafikoa). Beraz, gerta liteke modu negatibo horrek gizartean eragina izatea. Kontrako efektua gertatu daiteke migrazioaren irudia aldatzen denean, hau da, positiboa denean, Ukrainako kasuaren antzera.

2. Grafikoa: Hedabideek migrazioa tratatzeko modua EAEko biztalen aburuz



Iturria: Ikuspegi (2021)

Atal honekin amaitzeko, Youssef M. Ouled kazetariaren taula bat ekarriko dugu gurera (ikus 1. taula), Europar Batasunean eman diren aldaketak modu argian ikusi ahal izateko (Ukraina eta Hegoalde globalari dagokionez).

1. Taula: Ukrainaren eta beste etorkinen arteko aldeak

Ucranianos	Del sur global
Hay que acoger a 5 mill de refugiados que se calcula huirán de la guerra, son como nosotros, civilizados, blancos y de ojos azules, compartimos religión.	No podemos con todos los refugiados del mundo, no se integran, incivilizados...
Acceso a estatus de refugiadxs y movilidad por toda la UE	Sistema colapsado, sin plazas, el Convenio de Dublín obliga a solicitar asilo donde llegas aunque tengas familia en otro país de la UE, trabas burocráticas
Niños y niñas	MENAS
Regularización directa y permiso de trabajo	La regularización no es posible, no se contempla en el marco jurídico
Boicot a productos de Rusia como deber ético	El boicot a Israel es antisemita e ilegal
Cada vida cuenta para los medios de comunicación	Son números, cifras, sin nombre ni historia, sin futuro
Imágenes respetuosas con su dignidad humana	Cuerpos desgarrados, golpeados por las fuerzas policiales, cuerpos sin vida...
El mundo del deporte se vuelca contra la guerra. LaLiga añade el lema "No a la guerra" a sus retransmisiones televisivas.	No hay que mezclar deporte y política. Un mundial en Qatar. Kanouté sancionado con 3.000€ por apoyar a Palestina

Iturria: Ouled, Youssef M. (2022); Twitterretik berreskuratua¹³

5. DISEINU TEKNIKO ETA METODOLOGIKOA

Ikergaiaren helburu orokorra harrera praktikak egiten dituzten eragile ezberdinak alderatzea da. Helburua bete ahal izateko metodologia kualitatiboa baliatuko da, elkarrizketa erdi egituratuak eta talde elkarrizketa baten bidez. Elkarrizketa erdi egituratuak aukera ematen digu sakontasuna, berezitasuna eta zabalatasuna erantzunetan eskuratzeko (Valles, 1999:185). Era honetan, anonimotasunean esperientziak edota bizipenak eta eragile bakoitzaren funtzionamendua ezagutzeko aukera izango dugu. Talde elkarrizketen ezaugarria, aldiz, pertsona ezberdinak biltzen dituela da, ez eztabaidatzeko, baizik eta gai komun eta partekatuen inguruan hitz egiteko (González, 2013:92). Kasu honetan harrera moduen inguruan. Beraz, honi esker aberastasuna lor dezakegu partaideek esperientziak, bizipenak, jarrerak, besteak beste partekatzean (ibidem).

Harreman sare edo espazio sozial ezberdinetan, esperientzia sozialaren hainbat elementu -kognitibo, ideologiko, jarrerazkoak- arakatzea, mundu sozialaren inguruan sortzen diren pertzepzioak, irudikapenak eta definizioak aztertzean datza. Honek bat egiten du metodologia kualitatiboarekin (Martínez, 2002:231)

Hurbilpen kualitatiboak subjektuen adierazpen libre eta auto-determinatua bilatzen du, horretarako benetako komunikazio-egoera sortzen da elkarrizketatuen eta elkarrizketatzaileen artean; hau da, bi norabidetako komunikazio multidimentsionala eta dialektikoa (Martinez, 2002:235). Martinezen esanetan, “subjektuak birformulatu ditzake ikerlariaren galderak, bere hitzetan adierazten ditu bere iritziak eta nahi duen ñabardura-mailarekin adieraz ditzake bere ideiak eta jarrerak, horrela aukera gehiago zabaltzen dira

¹³ Ouled, Youssef M. [ymouled]. (2022ko martxoaren 14a). *He hecho una breve guía para no perderse en el racismo de la UE*. [Txioa] Twitter. <https://twitter.com/ymouled/status/1503152845759025157>

aktorearen diskurtsoan antzeman daitezkeen erreferente kulturalak eta ideologikoak antzemateko eta aztertzeo” (ibidem).

Eragile ezberdin horiek honako hauek izango dira: Irungo Harrera sarea, Larraña etxea (ZEHAR) eta Artea Sarea/Basoa (herritar talde gisa). Elkarrizketa erdi egituratuak burutzeko eragile hauetako arduradun banaren laguntza jasoko dugu, baita eragile bakoitzetik laguntza jasotako migratzaile bana ere (Irungo Harrera Saretik, izan ezik. Hauek iragaitzazko bidaiariak baitira eta zaila da). Emakumeen zein gizonen presentzia era berdintsuan bilatuko da. Guztira 3 elkarrizketa erdi egituratu izango dira eta talde elkarrizketa bat (Artea Sarea/Basoa). Hau horrela izanik, gure helburu espezifikoak bete ahal izango ditugu; hau da, Basoa proiektua hobeto ezagutu aldaketa berritzaile bezala; eragile ezberdinen arteko ezberdintasunak antzematea; bakoitzaren logikaren barnean artatuak izan direnen esperientziak/bizipenak ezagutzea eta Ukrainako krisiak ekarritako harrera moduen inguruan partaideek duten pertzepzioak aztertzea.

Eragile ezberdin hauen aukeraketaren zergatia hurrengo lerroetan azalduko dugu. ZEHAR errefuxiatuen, aberrigabeen eta migratzaileen eskubideak defendatzen dituen Gobernu Kanpoko Erakunde bat da, eta helmugako gizartean haien garapena sustatzen du. Irungo Harrera Taldea, ordea, 100 pertsona baino gehiagoko sarea dira, eta 2018ko udan hasi ziren euren burua antolatzen, Irungo tren geltokian abandonatuta eta eskubiderik gabe geratzen ziren migratzaileen egoera ikusita. Artea Harrera Sarea pertsona migratzaileei bizitza duinago bat izaten laguntzeko bidea da, herri mugimendutik sortuta. Azkenik, erakundeen mendekotasunetik bereizita eta Artea Harrera Sareari lotuta, ekofeminismoaren eta horizontaltasunaren aldeko apustua egiten duen topagunea da Basoa. Beraz, hautaketa hau ez da arbitrarioa edo zorizkoa izan; izan ere, bide instituzionalak, herritar sareek eta gobernu kanpoko erakundeek jarduteko moduetan dituzten desberdintasunak eta ezagutzak ezagutu eta gurutzatu nahi dira aldeak ikusteko. Laburbilduz, migranteei harrera egiteko balio, ikuspegi eta praktika ezberdinak aztertzeo izaera ezberdinetako eragileak aukeratu dira bi irizpideren arabera: izaera instituzionala eta profesionala dutenak -Zehar eta Gurutze Gorria- eta izaera herritarra eta aktibista -Irungo Harrera Sarea eta Artea Sarea/Basoa- dutenak (ikus 2. taula).

2. Taula: Eragileen hautaketa egiteko irizpideak


ERAGILEEN IZAERA			
ERAGILEEN KIDEEN DEDIKAZIOA		<u>Instituzionala</u>	<u>Herritarra</u>
	<u>Profesionala</u>	<u>Zehar / GG</u>	
	<u>Aktibista/boluntario</u>	<u>Zehar</u>	<u>IHS / AS / Basoa</u>

Ekoizpena: propioa

Aurretik esan bezala, Zehar gobernuz kanpoko erakundea da, instituzio publikoekin elkarlan harreman estuak dituen. Hau ikusteko zer den, zenbat zentro koordinatzen dituen eta nola finantzatzen den hobeto zehaztuko dugu. Zehar erakundeak horrela definitzen du bere burua: “25 urte daramatzagu lanean eta Euskadin erakunde erreferente gara gizaki guztiek babesa eta asiloa lortzeko duten eskubidea aitortzeko borrokan. Zehar-Errefuxiatuen, aberrigabeen eta migratzaileen eskubideak defendatzen ditugu, eta horien garapena sustatzen dugu hartzen dituzten gizarte berrian” (Zehar webgunetik eskuratua). Erakunde honek Eusko Jaurlaritzak ahalbidetutako bi zentro koordinatzen ditu, Larraña Etxea (Oñatin) eta Tolosako Zuloaga Txiki (Tolosan), “une batez edo behin betirako Estatuaren asilo programatik kanpo gelditzen diren beharrei erantzuteko” (ibidem). Bi zentro hauek guztira 115 pertsona artatzen dituzte. Beraz, Eusko Jaurlaritzak Zehar azpikontratatu du harrera zentroak kudeatzeko.

Erakundeak 2020. urtean 2.806.147€-ko diru sarrerak izan zituen. Hemendik ia %70a Eusko Jaurlaritzatik dator. Beste guztia, berriz, ehuneko nahiko txikietan banatuta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziazatik (%13,3), Foru Aldundietatik (%9,30 Bizkaiko Foru Aldunditik eta %1,63 Arabakotik), Bazkideen kuotetatik, dohaintzetatik eta ekitaldietatik (2,06), besteak beste. Hurrengo grafikoan ikus dezakegu zehaztasunez erakundea nola dagoen finantziatuta (ikus 3. grafikoa).

3. Grafikoa: Zeharrek 2020. urtean jaso dituen diru sarrerak



Iturria: Zehar

Bestetik, diseinu tekniko honetan ez da migratzaileen profila zehaztu, jakin badakigulako migratzaile batekin hitz egitea zaila izan daitekeela deskonfiantzaren ondorioz. Gainera, gurera iristen direnek profil anitza osatzen dute eta, beraz, ezin dugu profila zehatz bat definitu, errealitatea zabala baita. Beraz, hori transmititzea gure ardatza izango da. Gure lana jorratzeko haien laguntza ezinbestekoa da; izan ere, pertsona hauen errealitateari edota ibilbideari garrantzia eman nahi zaio haien ahotsei espazioa emanaz. Denbora guztian elkarrizketatuen anonimotasuna bermatuko da, lasai hitz egin dezaten eta haien segurtasuna babesteko.

Diskurtso analisisian murgildu baino lehen, ikerketari dagozkion mugak edo oztopoak azalduko ditugu. Ikerketa honek aurrera eta atzerapauso handiak izan ditu. Lehendabizi Ukrainako krisiarekin helburu espezifiko berri bat gehitu behar izan da; Ukrainako krisiak ekarritako harrera moduen inguruan partaideek duten pertzepzioak ezagutzea, alegia. Bigarrenik, lehenengo ideia guztira 8 elkarrizketa erdi egituratu egitea zen, mutilak zein neskek modu orekatuan. 8 horietatik erdia eragile ezberdinetako arduradunei bideratuta eta beste erdia eragile horietatik artatuak diren migranteak. Eragile horien artean Basoa eta Artea Sarea, Irungo Harrera Sarea, Irungo Gurutze Gorria (IGG) eta Zehar daude. Baina kontaktazioan arazoak egon direnez, ezinezkoa izan da lehenengo ideia hori betetzea. Beraz, moldaketak egin behar izan dira; hala nola, IGG baztertu eta besteetan zentratu. Gainera, ikusi dugun bezala, elkarrizketa erdi egituratu horien kopurua

aldatu da, 8 izatetik 3 izatera pasa dira. Hiru horiek Zeharreko arduradun eta migranteari eta IHSreko boluntario bati egin dira. 4. elkarrizketa bat ere egin da, baina kasu honetan talde elkarrizketa izan da Basoa eta Artea Sareko partaideekin. Talde elkarrizketa honetan hainbat galdera gelditu ziren egin eta erantzun barik, bideratzeko zailtasunen ondorioz. Garrantzitsua da adieraztea hizkuntza oztopo bat izan dela. Alde batetik, IHS-ra gerturatutako migrante bat ezin izan delako elkarrizketatu Frantsesa ez jakiteagatik. Eta bestetik, etorkin batekin behin baino gehiagotan itzultzailea erabili behar izan delako, komunikazioa oztopatuz. Honek frustrazioa eta urduritasuna eragin zuen elkarrizketatuarengan. Beraz, bilatzen zen erosotasuna ez zen guztiz bete. Gainera, nahiz eta itzultzailea erabili galdera batzuk ez zituela ondo ulertu esango nuke.

6. DISKURTSO ANALISIA

Diskurtso analisia gauzatzeko helburu espezifikoak oinarri hartuta egingo da. Izan ere, helburu espezifiko bakoitzak elementu ezberdinak jorratzen ditu; hala nola, alternatiba askatzailea, eragileen arteko ezberdintasunak; migratzaileen esperientziak/bizipenak ezagutzea eta Ukrainako krisiak eragindako harrera moduen iritzia. Analisiari hasiera eman aurretik, garrantzitsua da adieraztea anonimotasuna bermetzeko aipuetan ez dela izenik agertuko. Beraz, noren hitzak diren jakiteko AS (E1: Artea Sareako partaidea, izaera herritarra eta aktibista, emakumea), Ba (E2: Basoako defendatzailea, izaera aktibista eta herritarra, migrantea, emakumea), ASE (E3: Artea Sarea, migrantea, emakumea), IHS (E4: Irungo Harrera Sareko boluntarioa, izaera herritarra, emakumea), LE (E5: Larraña etxeko -Zehar- langilea, izaera instituzionala eta profesionala, emakumea), eta LEE (E6: Larraña etxeko egoiliarra, migrantea, emakumea) siglak erabiliko ditugu.

6.1. Eragile ezberdinen arteko ezberdintasunak antzematea

Helburu hau garatzeko bereizketa bat egingo dugu. Alde batetik, izaera herritarra eta aktibista/boluntarioa duten sareak izango ditugu hizpide eta bestetik, izaera instituzionala eta profesionala duen Larraña etxea edo Zehar erakundea. Gogoan izan behar dugu Zehar erakundeak Eusko Jaurlaritzatik diru laguntzak jasotzen dituela, baita espazioak ere. Hau da, Eusko Jaurlaritzak ahalbidetutako bi zentro koordinatzen ditu.

Adierazitako bereizketari esker sareen arteko ezberdintasunak eta sareen eta erakundearen arteko ezberdintasunak identifikatzeko aukera izango dugu.

Sareen kasuan, ikusitako behar batzuen ondorioz sortu ziren biak. Hau da, legeek edo instituzioek ez dituzte etorkinen beharrak eta eskubideak guztiz betetzen. Beraz, egoerari erantzun bat emateko sortu ziren. Hasieratik argi izan behar dugu bi sareen jarduteko modua zertxobait ezberdina izango dela, Irunera iristen direnek ez dutelako gelditzeko asmorik. Bien kasuan herritarren ekimen aktibistatik sorturiko sareak dira, baina desberdintasun puntu batekin; izan ere, Irungo Harrera Sarearen kasuan, elkarrizketatuaren hitzetan, boluntarioz osatuta dago. Artea Sarea, aldiz, elkarrizketatuaren aburuz, herri mugimenduak osatzen du. Marko teorikoan ikusi bezala, jarduera aurrera eramateko, ezinbestekoa izaten ohi da boluntariotza edo aktibismo soziala zein politikoa (Huarte, 2019).

IHS: “la red se creó a mediados de 2018 y está compuesta por voluntarias de la ciudad de Irún y de la ciudad de Hendaia. (...) se creó básicamente porque todas las necesidades de las personas migrantes no se cubrían, las instituciones no las cubrían (...) Ahora con el tiempo ha ido cambiando porque los recursos se han puesto en marcha, pero aún así todas las necesidades no están cubiertas, ¿no? Entonces, solemos acompañarles por la noche a Cruz Roja, les hacemos una acogida en la estación, luego por la mañana estamos aquí en la plaza del ayuntamiento para darles la información que necesitan y aclarar todas sus dudas, cambio de ropa muy importante porque muchos vienen con la vestimenta de Cruz Roja y ya los jendarmens y todo el resto lo conocen así que es importante que se vistan como una persona más de la ciudad.” (E4: Irungo Harrera Sareko boluntarioa, izaera herritarra, emakumea)

AS: “Artea Sarea ha sido un proyecto partido desde el movimiento popular, desde una necesidad al ver que cada vez había más familias en situación de calle con todos sus derechos vulnerados por la ley de extranjería, sin poder vivir como una persona de aquí porque no pueden trabajar, no pueden delinquir, no pueden hacer nada, ¿no? Osea es por lo menos durante tres

años si consigues padrón que eso quiere decir que mucho más y... parte de una necesidad de la gente que está empobrecida por la situación que las leyes imponen y entonces para transformar.” (E1: Artea Sareko partaideak, izaera herritarra eta aktibista, emakumea)

Irungo Harrera Sareko eta Artea Sareko kideek adierazten duten bezala, *Gu-Bestea* dikotomiaren barruan sartzen gara. Izan ere, janzkerak agerian uzten du pertsona zein taldetakoa den eta beraz, desberdin tratatua ez izateko *Gu* taldekoa izango balitz bezala jardun behar du. Era berean, atzeritartasun legeak eskubideak urratzen dizkiela adierazten digu AS-ko kideak. Marko teorikoan ikusi bezala, Estatu-nazioek eskubideak finkatzen dituzte, lurralde horietako biztanleriarentzat. Beraz, hemendik kanpo kokatzen direnek ez daukate eskubiderik (Khosravi, 2010). Gainera, *Bestea* edo migrantea herritar eredugarria da, dena ondo egin behar baitu arazorik ez izateko (ibidem). Hortaz, delitu egitea pertsona hauentzako ez da aukera bat, nahiz eta kale gorrian egon edo gizarte bazterkeria pairatu.

“Auto” hitza adierazten du AS-ko partaideak, adiera ezberdinetan; autogestioa eta auto-antolakuntza, alegia. Herri mugimendua den heinean, ez du instituzioen aldetik inolako laguntza ekonomikorik jasotzen eta beraz, haren jarduna aurrera egiteko bide ezberdinak baliatu behar ditu. Bide hauek 2016an Arteako Udalak herriko plazako eraikin bat biziberritzeko lehiaketa zabaltzearekin batera hasi ziren. AS-k berea aurkeztu eta esleipena irabazi zuen. Era honetan herritar eta solidarioei esker, eraikina egokitu zuten beharra duten pertsonen leku seguru eta eroso eskaintzeko (Lopez, 2019). Artea Herriko Benta du izena. Beraz, sare honen biziraupena hemendik dator; taberna, jatetxea, ostatu, bertako produktuen saltokia eta arropa konpontzeko tailerretik, alegia (ibidem). Horrez gain, asilo programak daude. Era honetan, ahal duenak babes ematen du etxe baten alokairuari aurre egiteko, adibidez. Auto-antolakuntzari dagokionez, herri mugimenduak bere eskuetan dagoena egiten du kalean dauden pertsona horiei aterpe bat bilatze aldera.

AS: “Hay diferentes situaciones. Por ejemplo aquí en Artea hay dos tipos, vamos a decir dos... Los que están en transito que están en este edificio que vienen con programas de Cear. Entonces son personas que están en un

programa de Cear que pasan un tiempo y luego se van al sitio donde les manden o... No les dan el asilo y entonces se quedan fuera y entonces salen. Luego hay migrantes que no están en ningún programa, pero esos perfiles suelen ser personas en situación de vulnerabilidad que suelen venir mediante el movimiento popular, ¿no? (...)el movimiento popular empieza a organizarse y a llamar a todos los sitios que puedan tener sitio para ver si alguien los puede acoger. Pero claro, ahí no hay ayudas. Osea, eso es auto-organización. Es con los medios que tenemos.” (E1: Artea Sareko partaidea, izaera aktibista eta herritarra, emakumea)

Artea Sareak argi uzten du laguntzarik jasotzen ez duela eta ez duela laguntzarik eskatzen, autogestioari ekiten diotela; izan ere, autonomia da, Estatu zein merkatutik at mantentzen baita (Toral, 2010 hemen aipatua: Vásquez, 2021:7). Autogestio hori aurretik ikusi bezala, Artea Herriko Bentatik lorturiko diru sarreretan oinarritzen da. Hala ere, herriko pertsonen dohaintzetatik ere bizirauten du sareak.

AS: “(...) se hace una recogida de ropa o de calzado de lo que necesite aparte de la comida (...) No, no recibimos ayudas ni las pedimos. Somos autogestionados.” (E1: Artea Sareko partaidea, izaera aktibista eta herritarra, emakumea)

Irungoak ere herriko pertsonen dohaintzetatik egiten du aurrera, baita enpresa pribatuen laguntza ere jasotzen dute. Hala ere, garrantzitsua da azpimarratzea bi sare hauek ez direla diru laguntzetara aurkezten, beraz, ez dute instituzioen aldetik inolako laguntzarik jasotzen.

IHS: “(...) de las instituciones no, pero del resto de la ciudadanía, de empresas privadas, de gente que se ha acercado de su casa, muchísima, muchísimo, muchísimo, mucho apoyo.” (E4: Irungo Harrera Sareko boluntarioa, izaera herritarra, emakumea)

Harrera moduei dagokionez, Artea Sareak garrantzia handia ematen dio gertutasun eta sentimenduei. Janariak eta bizitokiak eman ezin dezaketan maitasunaz

arduratzen dira, mundu guztiak behar baitu aurrera egin ahal izateko. Familia baten antzera hartzen ditu pertsona guztiak, haiek behar duten espazioa errespetatuz. Beraz, behar materialak asetzeaz gain, garrantzia handia ematen diete behar emozional, psikologiko eta sozialei. Behar materialetik haratago doazenei arreta eskaintzen diete; izan ere, berotasuna sentitzea beharrezko elementua izaten da aurrera egin ahal izateko.

AS: “primero es acoger, *o sea*, con un abrazo. O sea, porque claro, no es solamente el dar techo y comida, ¿no? Muchas veces las personas necesitan de afecto y eso es lo que nos parecía un poco... un poco vacío, ¿no? (...) llenar el corazón para que la persona se pueda reconstruir, ¿no? (...) y cuando estás un poquito mejor pues ya mires qué trabajos puedes encontrar y seguir avanzando, ¿no? Pero... pero eso es como... como... como en una familia, ¿no? al nuevo miembro pues le coges, le darás lo básico también, ¿no? (...) o sea, sobre todo aquí, pues se hace una recogida de ropa o de calzado de lo que necesite aparte de la comida y el techo y luego pues vas conociendo a la gente, vas a hablando, vas dejándole el tiempo para que pueda hablar también, como una persona cualquiera.” (E1: Artea Sareko partaidea, izaera aktibista eta herritarra, emakumea)

Horrez gain, elkarrekiko babesaren lortzen saiatu behar da, esplotazio egoera orori aurre egiteko. Beraz, babes emateko prest dagoen ororen eskutik salaketak burutu behar dira, legeen aldaketa gertatu dadin. Marko teorikoan ikusi bezala, Europako Kontseiluak giza eskubideen salaketak, presio moduak eta lege aldaketan eskaerak eta asistentzia zuzena barnebiltzen ditu giza komunitateak dituen ekarpenen artean (Europako Kontseilua, 2017 hemen aipatua: Huarte, 2019:11). Beraz, Artea Sareak ekarpen hauei garrantzia handia ematen diela esan beharra dago. Salaketak, zehazki, lehen leerroan egoten dira, hau baita gauzak eraldatzeko gakoa, eguneroko ekintzaz aparte.

AS: “hay que intentar pues conseguir pues que nos reunamos en apoyo mutuo que no haya una situación de explotación y que si hay alguien que está dispuesto a apoyar en ese sentido pues que tampoco... que haya una denuncia, ¿no? intentar pues ayudarnos entre todos. Y luego denunciar, denunciar, denunciar para que cambien las leyes que eso es lo

más difícil.” (E1: Artea Sareko partaidea, izaera aktibista eta herritarra, emakumea)

Irungo Harrera Sarearentzat harrera moduak osoak eta berdinzaleak izan behar dira, beti ere etorkinei ahotsa emanez. Era honetan haien beharrez jabetu daitezke, baita harrera zelan egin behar duten sortu ere.

IHS: “Íntegras, igualitarias y a mí me parece importante que se les dé voz a ellos. Y ver qué es lo que necesitan. Y de ahí tenemos que ir construyendo nosotros cómo tenemos que hacer la acogida.” (E4: Irungo Harrera Sareko boluntarioa, izaera herritarra, emakumea)

Aurrekoa oinarria da IHSarentzat, baina harrera moduetan aldaketak egon dira hasieratik gaur arte. Denborarekin gauza berriak ikasten dira, errealitate desberdinak eta nola jokatu egoeraren arabera. Beraz, ikasketa prozesu horrek aldaketak ekarri ditu; hala nola, emakumeak ez ukitzea. Nahiz eta migrante hauek bidean egon eta barrera emozionala ezin duten gainditu, zaintzak eta maitasuna nabari dira partaide honen ahotsan; izan ere, informazioa eskuratzen dute migranteen behar emozionalak hein batean asetzeko. Hala nola, emakumeen ibilbidea nolakoa izan den ezagutzea hauek deseroso senti ez daitezten. Normalean pertsona bat ukitzeak gertutasuna adieraz dezakeen arren, ibilbide gogorrak izan dituztenentzat ez du zertan horrela izan behar. Beraz, keinu hori ekiditeak beharrian psikologikoak errespetatzea ahalbidetu dezake.

IHS: “No, con el tiempo vamos aprendiendo cosas y qué debemos decir, qué no debemos decir. En principio no teníamos nadie ni idea de nada. Bueno, hay gente que sí, ¿no? Pero otra gente no, de acogida no o de la cultura africana. Si no has tenido nunca un acercamiento, un amigo o has ido al país o cualquier otra cosa no sabes. O muchas veces con las mujeres, ¿no? Que tendencia a tocarles, ¿no? No, no las toques. Han sido tocadas tantas veces durante su camino, aunque les toques en el hombro, no las toques. Pues esas cosas aprendemos, pero a raíz de que nos vamos informando, nos interesamos, sabemos qué les pasa, qué no les ha pasado, cómo es su camino

migratorio, todo eso.” E4: Irungo Harrera Sareko boluntarioa, izaera herritarra, emakumea)

Sare hauen artean dagoen alde nabarmena harrera moduetan dago; izan ere, Artea Sarean migranteak artatu eta herriaren berotasunaz bidea egiten laguntzen diete. IHS-n aldiz, gauza bera gertatzen den arren, momentu bateko laguntza eskaintzen zaie, haien helmuga ez delako Irun eta bidean aurrera egin behar dutelako. Horretaz gain, kontuan izan behar dugu AS-an dihardutenak herri mugimendua kontsideratzen direla eta IHS, ordea, boluntario sarea. Bestela, berotasuna, babes eta kemena bietan nabari da. Gainera, etorkinak haiengana heltzen dira sarea bera gerturatzen delako edo beste faktoreengatik -kontaktuak, beste eragile batzuk-. Kontatu horiek ezinbestean kapital sozialarekin lotu behar dugu. Ezin dugu ahaztu sare hauek oso garrantzitsuak direla migrazio prozesuetan migratzaileei babes ekonomiko zein informazioa eskaini ahal dietelako (Khosravi, 2010). Gainera, sare hauek herritarren artean harrera duin bat eskaintzeko dira -Euskal Herrian era honetako beste sare batzuk ere eraiki dira-. Hauen parte hartzeari elkartasun kontzeptua lotuta dago (Huarte, 2019:12).

IHS: “Puede ser que ya tengan de un amigo suyo que ya haya pasado previamente aquí y les pase nuestro contacto (...) o todas las noches estamos en la estación para coger las personas que llegan de noche y sino luego vas viendo por la ciudad.” (E4: Irungo Harrera Sareko boluntarioa, izaera herritarra, emakumea)

Hurrengo lerroetan Zeharren hitzak ikertuko ditugu. Era berean, Zeharrek ere leku seguru gisa identifikatzen ditu bere zentroak.

LE: “Guretaiko zentro honek dia asilo eskatzaileendako leku segurua eskeinketia gura dauen lekua. Zertarako? Ba berriz indarra hartu eta gero ba beren bizitzetan aurrera egin ahal izateko.” (E5: Larraña etxeke -Zeharlangilea, izaera instituzionala eta profesionala, emakumea).

Orain arte ikusi dugu sareak herritarrez osatuta daudela eta bakoitzaren aletxoez aurrera egiten dutela -militante, boluntario-. Baina Zeharrek aldaketa bat dakar; izan ere,

bere barne antolakuntza oso ezberdina da, profesionalen osatuta baitago. Hau da, bakoitzak bere funtzio zehatza betetzen du.

LE: “Hemen dau konserjerixako ekipo bat pittin bat ba barne funtzionamendua, despentsak eta logistika esateko arduraten dana eta gero dau talde sozial bat. Talde sozialan dau gizarte langile bat eta gero integratzaileak. Integratzaileak dako erreferentziako talde batzuk eta iten dauena da egoiliar bakoitzekin ibilbide personalizatu bat jakiteko zer harraminta bihar dian helburu horiek lortu ahal izateko. Orduan, gure helburua da hori, izatia *facilitadores en ese proceso*.” (E5: Larraña etxeke -Zehar- langilea, izaera instituzionala eta profesionala, emakumea)

Hala ere, Larraña etxeak ere bidea etorkinekin batera egiten du, haien ahotsak entzuten eta behar dutenari erreparatzen. Dena den, etorkinek espektatiba batzuk izaten dituzte, gure gizartean haien egoeratik bete ezin direnak. Beraz, Zeharreko integratzaileak horretaz arduratu behar dira, errealitatea ondo islatzeaz, alegia. Gainera, autonomia sustatzen dute; izan ere, haien rola babesera edo laguntzera mugatzen da, etorkinek haien ibilbidea egiten duten bitartean.

LE: “Bai, bai, bai, beraiekin. Pentsatu zu zurela egoiliarra eta ni naiz integratzailea. Orduan nik lehenengo galdeketa dotzudana da “zuk zer gura dozu?”, “hemendik urtebetera non ikusten zara?”. Orduan hori lortzeko ze bide eman biodu, zer pauso eman biodu, ez? Askotan egin behar dana pertsona horri pittin bat espektatibak errealitatera ekarri. (...) Eta horretatik gu saiaketan garena da ba ahalik eta erraminta edo baliabide gehixen jarten helburu horiek lortu ahal izateko. Guretako inportanteena eurak, *osea*, eurak iten dabe euren ibilbidea, gu gauz hemen ba babesa emuteko edo pittin bat hor laguntza moduan.” (E5: Larraña etxeke -Zehar- langilea, izaera instituzionala eta profesionala, emakumea)

Erakundeak harrera indibidualizatua eramaten du aurrera, bakoitzaren egoera eta profila ezberdina delako. Beraz, ezin dira harrera moduak orokortu eta profilen ezberdintasunak aintzat hartu behar dira harrera on bat egiteko. Gainera, integratzailearen

eta egoiliarren¹⁴ artean konfiantza espazio bat sortzea garrantzitsua da. Hau gertatzen ez bada, integratzailea aldatzen da. Beraz, alternatibak ezartzen dituzte egoiliarra gustura sentitu dadin.

LE: “*Aber*, gure harrera iteko modua nik uste dala, *osea*, alde batetik indibidualizaua izan bihar dala bai edo bai, derrigorra da zeatik ez daku... *osea*, pertsona bakoitza diferentea gara, bakoitzak motxila diferentea daku, bakoitzak debildade batzuk daku eta gaitasun batzuk. (...) Gero saiaketan gara konfiantza puntu hori lortzen. Egixa da batzuetan e... ba igual ez dala lortzen *feeling* iguala eukitia danakin, ez? (...) integratzaile erreferentia be aldatu bihar izan dogu (...)” (E5: Larraña etxeko -Zehar- langilea, izaera instituzionala eta profesionala, emakumea)

Feeling eta *aldaketa* hitzek agerian uzten digute gertutasunaren garrantzia. Hau da, Zeharren dihardutenak langileak diren heinean, gerta liteke alderdi emozional edo afektiboa garatuta ez izatea. Gainera, konfiantza ahalbidetu dezaketen praktikak martxan jarri beharrean, langilea aldatu egiten dute arazoari aurre egiteko, baina errotik konpondu gabe.

Irungo Harrera Sarearekin ikusi dugun moduan, harrera moduek eboluzio bat izan dute, Larraña etxean bezala. Izan ere, hasieran akatsak edo blokeo uneak bizi daitezke egoera ezberdinetan. Profil aldaketek ekartzen dituzten erronka berriek ere esperientzia garatzea ekar dezakete. Beraz, akatsetatik ikasi dute. Hala ere, oinarri ideologikoa hasieratik gaur arte berdin mantendu da.

LE: “*ikasten* zoaz zure akatsetatik. Nik uste hori be argi dauela eta gero euki du perfil aldaketa handixa. Nik esango neke bost Larraña diferente existiu diala (...) Orduan, *klaro*, gu be garaketan fan gara eta lortu du habilidade

¹⁴ Egoiliarra: Larraña etxeko profesionalak espazio horretan dauden migranteei erreferentzia egiteko erabiltzen duen kontzeptua

gehixau. Hasiera baten *igual* ba *segun* ze momentutan blokeau edo zailtasun bat geukana oin *igual* esperientziak erakutsi dozku ba zer in leiken edo zer ate jo geinken. Orduan alde horretatik nik uste garapen bat egon dala. Baina basia bera *de* ideologikoki nik uste berdina dala.” (E5: Larraña etxeko -Zehar- langilea, izaera instituzionala eta profesionala, emakumea)

Hala, garrantzitsua da adieraztea Larraña etxea ez dagoela egokituta profil anitzak artatzeko; izan ere, mugikortasun murriztua duen pertsona bat ezingo litzateke autonomia izan, mugitzeko laguntza beharko lukeelako. Beraz, aurrerago ikusiko dugun bezala, nahiz eta diru laguntzak jaso, diru hori gauza zehatzetara doa; hala nola, jakiak, berogailua eta urara.

LE: “(...) Mugikortasun arazoak dakon pertsona batek gure edifikioan, *aber*, edifikioa dau oso zaharra, da aurrez barnetegi bat izandakoa (...). Gurpildun aulkian dauen batek, hankak mugitu ezin dauenak laugarrenetik bosgarrenera ezin dau mobiu.” (E5: Larraña etxeko -Zehar- langilea, izaera instituzionala eta profesionala, emakumea)

IHS-ra bueltatzea garrantzitsua da. Izan ere, salto honen bitartez, IHS-k ere errekurtsioak eta espazioa mugatuta dituela adierazi nahi da, Larraña etxeak bezala. Hala ere, desberdintasun bat antzeman dezakegu. Izan ere, IHS-ren kasuan, funtzioa kalean egiten dute. Udan arazo handirik egon ez daitekeen arren, neguan hotzarekin eta egun euritsuetan lana oztopatu dezake. Horregatik uste da haiek egiten duten jarduna, hau da, ibilbidea jarraitu ahal izateko informazioa eskaintzea, Irungo Gurutze Gorriak egin zezakeela etorkinei prozesua errazte aldera. IGG eragilea erreferentzia gunea baita migranteentzat.

IHS: “No. Estamos en situación de calle, los veranos son muy buenos porque estamos al sol, pero en invierno hace mucho frío, hay mucha lluvia aquí entonces, pues eso, no hay espacio, no hay sitio. (...) Claro, lo ideal sería que todo esto lo pudiera hacer Cruz Roja que es para ellos una entidad segura, ¿no? Una vez desde la primera vez que pisan España Cruz Roja es quien les acoge y después van a donde la policía. Entonces para ellos es un

referente. Entonces todo lo que pase en Cruz Roja ellos lo van a sentir como seguro. Entonces ya sacarles de esa zona de confort les hace estar inseguros, les hace desconfiar. Aún así vienen, ¿eh? Pero lo ideal sería allí, en su sitio (...) allí en su sala de estar, ¿por qué no? Todo está allí. No se tienen que mover, no se cansan en bajar desde Cruz Roja hasta aquí, con la lluvia... Todo. Entonces lo ideal allí arriba. O que lo hicieran ellos mismos, claro (...) Pero, no sé, Cruz Roja tendrá sus motivos para no hacerlo.” (E4: Irungo Harrera Sareko boluntarioa, izaera herritarra, emakumea).

Salto txiki honen ostean, Larraña etxearekin jarraituko dugu. Larraña etxera iristen diren pertsonak Zeharrek hiriburuetan duen ofizinetatik bideratuta edo poliziarengatik iristen dira. Batzuetan beste eragile batzuek esku hartzen dute, edota zentroan daukaten edo izan duten ezagun batengatik. Esan beharra dago balorazio bat egin behar dela erabakia hartu aurretik. Beraz, Zehar sareekin alderatuta tramite burokratikoak egin behar ditu.

LE: “Normalean hona iristen dian pertsonak izaten dia Cearrek eta Zeharrek hiriburuetan dakon ofizinetatik bideratuta. Gero egoten dia salbuespen batzuk, ba beste erakunde batek ba *bueno* ezin dau erantzun bat emon pertsona bati orduan Cearrera edo Zeharrera joaten dao eta handik bideraten ditue gure zentrorra. Zuzenekorik ez daku. Dana da bideratuta behin baloraziño bat in ostean, ikusita ia errecurso egokixena zein den eta horren harira ba koordinau iten du sarrerria.” (E5: Larraña etxeko -Zehar- langilea, izaera instituzionala eta profesionala, emakumea)

Sareei ez bezala, Eusko Jaurlaritzak honi laguntza ekonomikoa ematen dio. Beraz, estatuaren menpe daude alor ekonomikoari dagokionez (Vásquez, 2021:7).


LE: “Bai, bai, gu subentzionatuta gauz.” (E5: Larraña etxeko -Zehar- langilea, izaera instituzionala eta profesionala, emakumea)

Marko teorikoan ikusi bezala, elkarteen zeregina ordezkarietatik haratago doa; izan ere, zerbitzuak eskaini ditzakete, Estatuaren ekintza osatuz (Vásquez, 2021:5-6).

Gainera bi taldeek erakutsi digute harrera egiteko moduak aldatu egin direla denborari eta ikasketa prozesuari esker. Baita harremanak izatea garrantzitsua dela ere. Azken hau marko teorikoan ere agertu zaigu; izan ere, Huarteren aburuz, harrera egiten dutenen esperientziek lankidetzaz zein kolaborazio estrategien garrantzia azpimarratu dute, gobernu kanpoko edo gizarte zibileko erakundeekin, zein sektore pribatu eta boluntarioekin (Huarte, 2019:13).

Beraz, helburu honen analisia laburbiltze aldera, eragile bakoitza non kokatzen den adierazten duen eskema bat ikusiko dugu (ikus 1. eskema).

1. Eskema: Eragileen kokapena beharrian material eta afektiboak ardatz harturik



Ekoizpena: Propioa

Irungo Gurutze Gorria (IGG) diskurtso analisian jorratu ez dugun arren, eragile instituzionalizatuen eta eragile aktibisten arteko aldea hobeto ikusteko eskeman txertatu dugu, eta hortaz, azalpenean ere. Irungo Gurutze Gorria eskeman ikus dezakegun bezala, instituzionalizatuena da. Azalpen honekin jarraitu aurretik, ezinbestekoa da honen testuingurua ezagutzea. Irungo taldea laguntza humanitarioko programan kokatzen da. Hau inklusio ministerioari dagokio. Gainera, programa hau gestionatzeko hitzarmen ezberdinak ditu; horietatik %40a Gurutze Gorriak darama laguntza humanitario programari dagokionez (Aranguren, 2021:50). Programa honek kostatik edo lur mugetatik (Ceuta/Melilla) sartzea lortzen duten pertsonak artatzen ditu. Beraz, harrera

egiten da lurraldera iritsi orduko, asilo, asilo eskatzaileak ez direnei, alegia (ibidem). Azken honek, hau da, lurraldera nondik iristen den programan sartzeko irizpidea litzateke, nazionalitatea aintzat hartu barik (Aranguren, 2021). Sartzeko prozesua elkarrizketa indibidual batean oinarritzen da. Honen ostean balorazio bat egiten da. Arreta psikologiari ez zaio hainbeste erreparatzen. Era honetan, psikologorik ez dagoela azpimarratu beharra dago. Beraz, gehienbat eskeintzen duena behar materialak asetzea da; hala nola, mugikorra kargatzea, *wifi*-a, arropa, laguntza juridikoa... (Aranguren, 2021:53-54).

Beharrian materialak eta beharrian afektibo, emozional eta sozialen artean, Zehar eta Irungo Harrera Sarea izango genituzke. Lehenengoaren kasuan, aurretik ikusi bezala, izaera instituzionalizatua duen eragilea da. Beraz, IGG-n bezala, beharrian materialak dira gehienbat asetzen direnak. Gogoan izan behar dugu langileak direla honetan dihardutenak. Beraz, rol hori ez da desagertzen. Honen eraginez, hoztasuna nabaritu daiteke (salbuespenak salbu; hau da, langilearen arabera, ezin baitugu orokortasunean erori) integratzaile zein migranteen artean. Izan ere, mahai batek banantzen ditu bakoitzaren posizioa agerian utziz (langile/integratzaile eta migrante/egoiliar). Irungo Harrera Sarearen kasuan, aldiz, esan beharra dago Artea Saretik gertu kokatzen dela. Baina biak sareak izan arren, Irungo Harrera Sareko zeregina aldi batekoa da. Hau da, bidean dauden migranteei laguntza eskaintzen die. Beraz, beharrian materialak asetzen dituzten bezala (hala nola, arropa aldaketa), beharrian afektibo zein emozionalak asetzen dituzte (ahal den neurrian). Hala ere, kontuan izan behar dugu IHS-ko kideak adierazitakoa. Izan ere, honen esanetan, migranteek ezin dute haien barrera emozionala kendu, oraindik bidea egiteko baitaukate. Hala ere, albuespen batzuk daude, hiru egun edo gehiago daramatzatenek haien bizipenak eta sentimenduak adierazten dituzte batzuetan. Gainera, haien prozesua ulertzen dute, baita haien espazioa errespetatu ere, inolako galdera pertsonalik egin gabe.

IGGko eta Zeharren kasuan ikusitako hoztasuna IHS-rekin lausotuz joan den bezala, Artea Sarearekin eta Basoarekin guztiz desagertzen da. Azken bi hauek kontzepzio politikoa daukate; izan ere, salaketak lehen lerroan jartzen dituzte. Artea Sarean zentratuz, esan beharra dago beharrian emozional, afektibo eta sozialak asetzen ditu. Berotasuna hasieratik transmititzen dute, inolako bereizketarik gabe. Honek

harreman sare baten kide izatearen sentimendua bultzatzen du. Pertinentzia sentimendu hau marko teorikoan ikusitako Wong eta Solomonen integrazio komunitario kontzeptuarekin harremanetan jar dezakegu. Izan ere, kontzeptu honen dimentsioen barnean baliabideen erabilera eta komunitateko eginkizunetan parte hartzea -integrazio fisikoa-; komunitateko beste kideekin interakzio eta konpromisoa -integrazio soziala-; eta pertinentzia sentimendua garatzea -integrazio psikologikoa- aurkitzen dira (Wong eta Solomon, 2002 hemen aipatua: Huarte, 2019:7). Dimentsio hauek guztiak Artea Sareak barnebiltzen ditu. Basoak esparru hauek garatzen dituen arren, haratago doa; izan ere, honek kidetasun politikoa edo identitate partekatua sortzen du. Hau da, mundu guztietako pertsonak bat datoz defendatzaile izaerarekin.

Beraz, protokolo zehatzetatik (eragile instituzioen kasuan) eta beraz, burokratizazio honek dakarren gizatasun ezatik, protokolo ezara edota harrera integralago/osoagora igaro gara (batez ere, Artea Sarea eta Basoa). Azken bi hauek bihotzetik dihardute. Ikusi dugun bezala, ahaidetasunean, adiskidetasunean eta lotura komunitarioetan oinarritzen diren sareak oso garrantzitsuak dira migrazio prozesuetan; izan ere, hauei esker migratzaileak babes ekonomikoa eta informazioa eskura ditzake (Khosravi, 2010). Hala ere, garrantzitsua da esatea espazio hauek babes gune garrantzitsuak direla (Vásquez, 2021).

6.2. Bakoitzaren logikaren barnean artatuak izan direnen esperientziak/bizipenak ezagutu

Helburu honi erantzun bat emateko Artea Sareko Etorकिनaren eta Larraña etxeko etorkin/egoiliar hitzetan oinarrituko gara batik bat. Bakoitzaren diskurtsoa modu independente batean analizatuko da, nahiz eta ondoren ondorioak aterako diren. Dena den, gerta liteke momentu batzuetan Basoako defendatzailearen hitzak ere gurera ekartzea; izan ere, defendatzaile eta aktibista posiziotik hitz egiteaz gain, momentu ezberdinetan etorkin gisa hitz egiten digu.

Hasi aurretik garrantzitsua da adieraztea lehenengo biek errealitate ezberdinak bizi izan dituzten arren, elementu komun batzuk dituztela: Afrikatik etorritako

emakumeak direla, baita haurdun egon direla ere. Artea Sarekoaren errealitatearekin emango diogu hasiera hirugarren helburu honen analisiari.

Migratzaile askok bezala, bere lurraldea utzi zuen bizitza hobe bat bilatzeko. Baina ez du uste etorkizun oparorik izango duenik. Bere ibilbidea mingotsa izan da. Iristean adingabeen zentro batean egon zen haurdun zegoelarik. Zentro horretan jokabide arrazistak antzeman zituen; izan ere, jatorriak pisu handia zuen jokabide egokiak jasotzeko. Hau da, europarrak ez zirenak tratatu desberdin eta ankerra pairatzen zuten. Marko teorikoan landu bezala, arrazakeria instituzionala ere bada, eta jatorriaren araberrako bereizketa erreproduzitu egiten da maila eta eremu ezberdinetan. Esku hartze honetan hainbat eragile inplikatzeko dira (Castellanos, 2001 hemen aipatua: Pintado, 2020:109). Kasu honetan, adingabeen zentroa. Bartzelonan ere egon da, eta nola edo hala bizimodua atera behar izan zuen. Laguntza eskasa jaso du neska honek, Ongi Etorri plataformarekin harremanetan jarri zutenera arte. Geroztik, Artean dago, herritarren parte sentituz. Horri esker bidetik galdutakoa joan da berreskuratzen.

ASE: “Yo también migré para buscar una vida mejor y bueno y también es que veía desde los 17 años que no voy a tener un futuro, nada y en qué estudio. Si no tienes a alguien que lo conoces que te pueda meter en algún trabajo, pues nunca trabajas. Por ejemplo, tengo una hermana mayor que ha estudiado económicas y terminó todos sus estudios y está en casa ahora, es que no tiene trabajo. (...) He estado en el centro de menores y hemos sentido todas que no nos querían como marroquíes o como africanas (...) porque primero no somos españolas ni europeas. (...) porque han estado ahí... ha estado ahí una chica de Francia y las españolas pues la manera cómo les tratan a ellas que a nosotras fue distinta y mucho.” (E3: Artea Sarea, migrantea, emakumea)

Elkarrizketatuaren hitzak kontuan izanda, esan genezake Bartzelonako herri hori ez zela bere ustetan harrera herri bat izan, Artea izan den bezala. Izan ere, Arteak etxekoa dela transmititu dio hasieratik. Gainera, zorroztasunez adierazten digu adingabeen zentroak duen jarrera migranteak hortik irten orduko. Hau da, migranteak zentrotik irtetean zentroko langileek helmugatik galdetzen diete soilik tramite burokratikoak

aurrera eramán ahal izateko, hau da, dokumentu batzuk bete ahal izateko. Era honetan, gizatasuna galtzen da.

ASE: “Mira, he estado en Barcelona en un pueblo. Y también dicen que en los pueblos que se acogen el uno al otro... No sé, mucho no he visto yo. Igual para familias con hijos igual sí porque yo he estado sola no he estado con niño. Pero llevo yo como una persona joven y que acaba de salir del centro perdida. Primero que cuando sales del centro no te dan... papeles y que te vayas a buscar la vida. (...) Rellenan un informe y ya está, te vas.” (E3: Artea Sarea, migrantea, emakumea)

ASE: “(...) a través de esta fundación pues me contactaron con Ongi Etorri y llegué hasta aquí y así ya casi tenía 9 meses de embarazo. Y sí, pues un cambio total. Aquí no sientes que eres de fuera, ni de África, ni de Japón, ni... Eres de aquí y ya está. Entrás, te abren las puertas, te abren el corazón y ya está. Y eso es lo que nos hace falta a nosotros a la hora de llegar porque nos perdimos muchas cosas en el camino y lo necesitamos recuperar por una manera u otra y eso nos hace fuertes, como encontrar un sitio que te sientes mejor o te sientes como estás en familia o que te quieran y que te cuiden pues te hace como revivir otra vez (*emocionada*).” (E3: Artea Sarea, migrantea, emakumea)

Neska honen diskurtsoan ikus dezakegun bezala etorkinaren posiziotik hitz egiten digu, bere ibilbidean zehar etorkina dela ezin izan baitu momentu bat bere ere ahaztu, Arteara iritsi arte. Harrera herri honek bizitza aldatu dio eta beste herritar bat gehiago dela transmititu diote. Beraz, Arteako herritar posiziotik ere hitz egiten digu. Arteak atek zabaldu dizkio, behar zuen babesa eta maitasuna topatzeaz gain, errolda eta beste motatako laguntzak ere lortu ditu. Gazte posizioa ere baliatu du Arteara iritsi baino lehen gazte izateak ekarritako oztopoak adierazteko; hala nola, harrera duina ez izatea.

ASE: “Para mí me ha dado mucho. Hay gente que no ha podido disfrutar o aprovechar este acogimiento y cariño y todo esto y la ayuda que nos dan. Pues a mí me ha cambiado la vida. Yo lo digo así porque en el camino he

perdido muchas cosas, confianza, no sé qué, ganas, sueño, no sé, muchas cosas. Pero cuando llegué aquí a este pueblo es que es difícil salir. Cuando digo difícil salir es como que entras a tu casa y difícil dejarles o decirles adiós o que te vayas a otro sitio a vivir, ¿me entiendes? Pues eso es lo que siento” (E3: Artea Sarea, migrantea, emakumea)

Larraña etxeko egoiliarrari dagokionez, Aljeriatik hasi zuen bere ibilbidea. Aljeria –Palma- Valentzia-Bilbo. Hau guztia haurdun zegoelarik. Aurreko nes karen antzera, bere lurraldea utzi behar zuen bizi hobe bat izateko eta bere familia laguntzeko, ahizpen artean nagusia baita. Bidaia egin ahal izateko dirua eskatu behar izan zuen. Lagun batek Gurutze Gorriaren berri eman zion eta berak bere senarrarekin batera gurutze gorriaz galdetu zuten, topatu arte. Berrizeko zentroan denboraldi bat egon ostean, Gurutze Gorriak Zeharreko zentrora lekualdatu zituen. Asko eskertzen du gizarte langileek berekiko duten jarrera, asko laguntzen baitute; baita lo egiteko, jateko eta ikasteko (hizkuntza eta formakuntza) toki bat izatea ere. Hala ere, berak argi dauka, independentea izan nahi du, ez zaiolako dependentzia egoeran egotea gustatzen. Hemen ondo dagoen arren, lana topatzean -saltzaile gisa, zaintza lanetan edota garbitzaile moduan- askoz hobeto egongo dela adierazi du. Marko teorikoan ikusi bezala, errefuxiatuak prekariedade egoeran bizi dira, kualifikazio baxuko lanak egotzen zaizkietelako (Huarte, 2019).

LEE: “Argelia a Palma. Palma dormir no en casa. Porque yo y marido también no tenemos dinero. Yo hablo con otro personal “por favor, necesito 5-10 euros”. Claro, yo el ticket Palma-Valencia. Valencia-Bilbao. Sí, un poquito... porque no tengo dormir y yo embarazada y mucho dolor. Ya está porque Bilbao porque nosotros, marido y yo vamos a Cruz Roja. Yo hablo “*bla, bla, bla*” y ya está. Cruz Roja nos lleva a Berriz a un centro pequeño y al hospital. Sí porque ya no puedo, ya está, ya está. Unos meses en el centro de Berriz y ahora aquí. Y aquí bien, sí. Porque trabajadoras sociales bien y todos bien. No problema, nada. (...) No sé, ayudar con niña, sí. Ahora yo tengo donde dormir, habitación, claro. Yo aprendo aquí y ellas me ayudan, sí.” (E6: Larraña etxeko egoiliarra, migrantea, emakumea)

LEE: “Yo quiero mucho trabajo aquí en España, quiero aprender aquí, quiero vivir aquí en España, quiero estancia. Porque yo antes en Argelia muchos problemas para familiar, no trabajo también, no escuela, no... Mucho problema. (...) Ah, no, no muy importante, porque yo quiero depender de mí misma, ¿entiendes? Yo quiero depender mucho de mí misma, porque yo no quiero depender de Zehar o... No, no, no. Porque yo quiero trabajo, sí.” (E6: Larraña etxeko egoiliarra, migrantea, emakumea)

Emakume honen diskurtsoan ikus dezakegun bezala, ahizparen, alabaren, emaztearen eta amaren posiziotik hitz egiten digu. Gogo biziz lan bat eskuratu nahi du dependentzia egoera gainditu ahal izateko, beraz, menpeko egoeratik ere hitz egiten du. Etorkinaren posiziotik ere hitz egiten digu, bere ibilbidea azaltzen digun bitartean.

Bi diskurtsoak alderatzen eta kontuan hartzen baditugu bi eragileen -Artea Sarea eta Zehar- errekurtsoak ezin dezakegu esan haien esperientziak errekurtsoengatik baldintzatuta daudela. Izan ere, biak oso eskertuta daude jasotako harrera eta laguntzarekin. Dena den, “familia” hitza tarteko izanik, ondorioztatu genezake Artea Sarean sortzen diren harremanak estuagoak edota sakonagoak direla. Hau da, horizontalagoak. Izan ere, beste kasuan “integratzaile” – “etorkin/egoiliar” harremana ez da gainditzen. Hau da, nahiz eta harremana berdina izan herrian jaiotako pertsona batekin edo kanpotik etorritako pertsona batekin, ezaugarri hori ez da desagertzen.

6.3. Ukrainako krisiak ekarritako harrera moduen inguruan duten pertzepzioak ezagutu

Helburu honetan ere bereizketa bat egingo dugu. Alde batetik, eragileen diskurtsoak ekarriko ditugu gurera. Eta bestetik, etorkinen diskurtsoak.

Eragileen partaideen aldetik ez dago ezberdintasun handirik. Izan ere, bai Irungo Harrera Sarekoa eta bai Zeharrekoa bat datoz laguntza hori beharrezkoa dela, baina denontzako. Hau da, ezin zaie batzuei onartu eta beste batzuei ukatu jatorriaren arabera. Laguntza hori unibertsala izan beharko litzateke. Ikus ditzakegun bi ezberdintasunak honako hauek dira: (1) Zehar eragile instituzionalizatua edo profesionalizatua den

heinean, haiekin dauden jatorri ezberdinetako egoiliarrei azalpenak eman behar dizkiete, horrek suposatzen duen zailtasunarekin. (2) Irungo Harrera Sareak nabaritu du harrera aldaketa modu hauek jendearen kontzientzia piztu duela; izan ere, beltzei zenbat traba jartzen zaizkien konturatu dira. Beraz, balore eta ikuspegia antzekoa izanda ere, ezberdintasunak daude izaera ezberdina duten eragileen artean. Lehenengo ezberdintasunean murgilduz, esan beharra dago geroz eta instituzionalizatuagoa izan, orduan eta goitik datozen praktikei zein diskurtsoei aurrera egin behar diete; hala nola, justifikaezinak diren neurriak justifikatzea. Hortaz, autonomoagoa (IHS) izateak eginkizun hori saihesten du.

IHS: “(...) Hemos visto que si hay voluntad se puede hacer. Lo que no puede ser es que si una persona de Ucrania ha conseguido regularizarse en un mes y los que llevan aquí en Irún tres años no lo han conseguido o lo han conseguido ahora. (...) Entonces lo que han hecho me parece maravilloso y me parece estupendo, pero tiene que ser para todos. Y creo que ha servido también a mucha gente del pueblo para darse cuenta y decir: “oye, pues qué rápido se han movido para los Ucranianos. Y vosotros, por ejemplo, que estáis con los negros, ¿cuántos problemas tenéis, no?”. Y digo: “ah, bueno, al menos han despertado esa conciencia en la gente”. (...) Entonces depende de la voluntad de las políticas de todos los países, de Europa en este caso.”
(E4: Irungo Harrera Sareko boluntarioa, izaera herritarra, emakumea)

LE: “*Aber*, hobeketako dan dana, hau da, aportateko dan dana ongi etorrixa da, baina egixa da in beharko litzakeela extendiu beste nazionalidade danetarako jendiandako, ez? Guretako zaila da explika iten Maliko mutil bateri hemen dauena zortzi hilabete itxoiten Ukrainatik ailegau berri dan familixa horri lehentasuna emango dotzala ministeritzak. Zeatik? Gerria ez da berdina Ukrainan edo Malin? Zaila da gestionaten eta zaila da justifikaten. (...) Eta gizartearen aldetik be uste dot oso erantzun polita egon dala, ze benetan egon dala oso erantzun polita, baina bai dakola alde gazi-goxo hori, ez? (...) Baina uste dot Oñati herri moduan bai izan dala oso harrera herrixa. Baina bai uste dotela foku mediatiko honek euki dauela

beste herrialdeetan ez dana egon. Orduan polita izango litzake izan jatorrizko herrialdea edozein izanda be erantzun berdina eukitia.” (E5: Larraña etxeko -Zehar- langilea, izaera instituzionala eta profesionala, emakumea).

Zehar profesionalaren hitzak aztertuz, “erantzun polita” erantzuna azpimarratzekoa da. Izan ere, bakunegia dirudi. Hau da, edonork eman lezake erantzun hori. Ikuspegi ideologiko-politiko garatu barik duen norbaitek, alegia. Politizatua dagoen pertsona batek ez luke horrelako hitzik erabiliko, hitz zorrotzak eta ekintzak erabiliko lituzke aldarrikapenak eta salaketak egiteko, errotik aldaketa bat lortzeko.

Diskurtso kritikoago bat dute etorkinek. Izan ere, hauek argi eta garbi arrazakeria bezala definitzen dute, laguntzak ukatzen edo trabak jartzen zaizkietelako edo delitugile bezala tratatzen direlako Hegoalde globaletik datozenak. Hala ere, ez dute laguntza ukatu behar zaienik adierazten, baizik eta gauzak eraldatu behar direla, indibidualismoa alde batera utziz. Gainera, ezinbestean haien bizitza arriskuan dagoela zehaztasunez demostratu behar dute.

ASE: “(...) yo digo por la guerra de ucrania por la gente que llegó y la ayuda es lo que recibieron no voy a decir que está mal, está bien porque también lo están pasando mal, pero hay un racismo porque hay muchas personas que mueren en el mar. (...) Y eso es una guerra también (...). Y nadie habla de ello y nadie... Sí, pues sacan fotos y “se ha muerto esta”, “se ha muerto...”, “unos africanos se han muerto...”. Sí, nada más.” (E3: Artea Sarea, migrantea, emakumea)

ASE: “Pero los que se salvaron para llegar hasta aquí pues están durmiendo en la calle. Como todo lo que han vivido en el camino no sirve para nada. Como que pusieron sus vidas para morir y cuando llegaron pues siguen muriendo, de hambre, de sentimientos, de... de todo. Pero creo que eso va poco a poco y hay que juntarnos y ver que tenemos un sentimiento de humanidad fuerte porque eso sí nos va a llegar, vivir todos juntos, tranquilos. Porque si cada uno piensa por él mismo y piensa por su... sí, bien, pero hay

que dar un poco por otro lado o por tu vecino, ¿no?” (E3: Artea Sarea, migrantea, emakumea)

Artea Sareko migranteak esan bezala, pertsona ugariak itsasoan bizitza galtzen dute. 2021an zehazki, 4.404 pertsona izan dira helmugako jatorrira iristea lortu ez dutenak; hauetatik 4.175 izan dira bizitza galdu dutenak muga igaro nahian eta 229 desagertu egin dira (Caminando Fronteras, 2021). Gogora ekarri behar dugu Butlerren negargarritasun kontzeptua. Izan ere, partaide honek argi uzten du inork ez duela ezer egiten egoera honen aurrean, hau da, jendeak bizitza galtzearen aurrean. Beraz, pertsona hauen galera ez da negargarria, pertsona hauek estatus baten parte ez baitira (Butler, 2020:54-55).

BA: “¿Y qué pasa con todas esas personas que migramos por todas esas causas y aquí se nos trata también como si viniéramos a delinquir? Y que extranjería también es tan violenta y tan racista y tan hipócrita que hablan por un lado de solidaridad, de ahorita en estos momentos donde se originó la guerra, en Ucrania, hablan de esto y no sé qué. Pero aquí estamos migrando desde hace mucho en base a guerras, guerras que siguen silenciadas. Desde aquí venimos migrando desde hace mucho y ¿qué se nos pone? Limite tras limite tras limite. Tenemos que mostrar que nos quieren matar, tenemos que mostrar que nos estamos muriendo de hambre, tenemos que mostrar que no hay esto, que no hay lo otro. Porque como solo importara aquel al que disparan.” (E2: Basoako defendatzailea, izaera aktibista eta herritarra, migrantea, emakumea)

Ondorioz, partaideen aldetik iritzi orokortu bat egon da; izan ere, denak bat datoz Ukrainakoei laguntza eskaini behar zaiela, baina laguntza hori zabaldu behar da, mundu guztiak jaso dezan inolako bereizketarik egin gabe. Ukrainako pertsonen egoeran pertsona ugari daude gure gizartean eta Hegoalde globalekoa izateagatik atak ixten zaizkie. Zeharreko partaideak eta Artea Sareko migranteak argi daukate hedabideek eragina dutela gizartearen iritzian zein etorkinen iruditegian, baita etorkinen nazionalitatean oinarritutako onespenean ere. Beraz, hedabideek baldintzatzen dute etorkinen egoera. Baieztapen honek bat egiten du gizartearen jarrerarekin Ikuspegiko

datuetan ikusi dugun bezala (Ikuspegi, 2021). Gainera, hedabideek Hegoalde globaleko etorkinen giza izaera ezabatzeaz gain, egindako ibilbidea eta gainditutakoa ezabatzen dute.

Garrantzitsua da aipatzea Basoako partaidearen hitzak hemen sartu ditugula proiektuaren kide posiziotik hitz egitetik, migrante posiziotik hitz egitera pasa delako (bere defendatzaile posizioa ahaztu barik).

6.4. Basoako proiektua hobeto ezagutu alternatiba askatzaile moduan

Helburu hau aztertu ahal izateko, Basoako partaidearen hitzak ekarriko ditugu gurera, nahiz eta Artea Sareko partaidearen hitz batzuk agertu. Hurrengo lerroetan Basoa zer den, zergatik sortzen den eta Basoa proiektuaren garrantzia ezagutzeko aukera izango dugu.

AR: “Basoa es un proyecto para la acogida de defensoras y es dentro de una comunidad porque en Basoa también hay otra gente que vive que es activista entonces ahí se crea una comunidad entre todos. Claro, los perfiles son totalmente diferentes porque muchas veces las defensoras vienen ya politizadas, ya tienen conciencia, han tenido un recorrido largo de lucha, entonces ya están en esto. O sea, por ejemplo puede haber migrantes que han recorrido para salvar su vida, para buscar una vida mejor.... Pero en esa búsqueda también nosotros somos movimiento popular y nosotros aspiramos a otro tipo de mundo, ¿no? Que podemos ser anticapitalistas, feministas, ecologistas...” (E1: Artea Sareko partaidea, izaera aktibista eta herritarra, emakumea)

BA: “Basoa es como una evolución de la Red de Artea, nace desde allí para dar un paso más delante de las necesidades también, porque, ¿por qué está migrando toda esta gente? ¿Quién defiende buscando la raíz del problema de la migración? Pueden ser las transnacionales, la mala administración de los estados en base a derecho dentro de cada territorio/país. Entonces también es como, ¿quiénes están ahí defendiendo esas raíces de esos

problemas? (...) Entonces lo que queremos es que la sociedad despierte y entienda que si no te deconstruyes desde el consumismo, desde esto y lo otro, nosotros también aportamos a que estas empresas sigan devorando, aportamos a que toda esta población siga migrando (...)” (E2: Basoako defendatzailea, izaera aktibista eta herritarra, migrantea, emakumea)

Bi diskurtso berdintsu hauetan ikus daitekeen bezala, Basoa proiektuak defendatzaile zein militanteei haien espazioa ematen die, komunitate bat sortuz. Gainera, Basoak arazoaren erroa joan nahi du, hori abiapuntu izanik egoera ondo ezagutzeko zein ulertzeko. Funtsean, egoera horri buelta emateko. Horrez gain, ezinbestekoa da ulertzea zein den gure bizitza estiloa eta guztiz eraldatzea planeta salbatzeko, migrazioa ekiditeko, hau da, desikasten ikasi behar da. Bi partaide hauek militantziazatik eta defendatzaile posiziotik hitz egiten digute.

Ikusi dugun bezala, Basoa defendatzaile eta militanteen espazioa bilakatu da, arnagune zein alternatiba bat. Hau da, haien lurraldetik ihes egiten dutenei aukera ematen die haien jarduerarekin jarraitzeko. Beraz, proiektu honek baditu bere ezaugarri propioak, beste eragile batzuetatik desberdintzen dituenak -harrera proiektu ezberdinetatik edota lagun talde proiektu ezberdinetatik-.

BA: “Porque nosotros no solo migramos y nos quedamos como una persona migrando y saliendo adelante como cualquier otro perfil. No, nosotros seguimos militando porque Basoa nos permite tener un espacio con una diferencia a los demás proyectos de acogida, a los demás proyectos de acompañamiento.” (E2: Basoako defendatzailea, izaera aktibista eta herritarra, migrantea, emakumea)

Zaintzak erdigunean kokatzen dira, baina ez auto-zaintza edo bakoitzak bere buruarekiko duen zaintza, baizik eta zaintza zentzu zabalean. Hau da, elkarrekikotasuna ezinbesteko elementua da. Era honetan bizipenak partekatzeko aukera izateaz gai, etsai komunaren kontra borrokatzeko izan ditzaketen erramintak partekatzeko gunea da. Erraminta horiek elkartasuna gainditu behar dute. Hots, hitzetatik edo elkartasunetik ekintzetara pasatzea ezinbesteko da proiektu honetan.

BA: “Los cuidados están en el centro, pero no solo el cuidado para la defensora, sino cuidado también para quien nos acompaña, cuidado también para el colectivo, el cuidado en todos los sentidos. Y el poder tener ese espacio donde nosotras las defensoras podamos compartir nuestras experiencias, nuestras luchas, pero también poderles dar las herramientas para que ellos aquí también militen contra el monstruo capitalista, el que nos está destruyendo allá y que su origen es acá. (...) Es que eso a nosotros, la solidaridad sí nos inyecta energía, pero hay que ir más allá de la solidaridad, hay que hacer acciones.” (E2: Basoako defendatzailea, izaera aktibista eta herritarra, migrantea, emakumea)

Zaintzak ez dira erdigunean dauden bakarrak, haien lurrerako eskubidea ere erdigunean dago. Izan ere, transnacionalengandik askatzea xedea da, aldaketa lortzea. Militantzia esparrua ez da aldi baterako soilik, etengabeko borroka da, lurraldeak suntsitzen ari direlako. Hala ere, esparru hau sana izan behar da eta hori da Basoak eskaintzen duen elementuetariko bat.

BA: “No, lo nuestro es «vamos porque es nuestra vida», «vamos porque son nuestros ríos», «vamos porque es nuestra tierra». No nos importa, para nosotros el cuidado colectivo está en el centro, para nosotros está en el centro el derecho a nuestra tierra, para nosotros está en el centro liberarnos de esa transnacional.” (E2: Basoako defendatzailea, izaera aktibista eta herritarra, migrantea, emakumea)

Kontziente dira haien lurraldeek eta ondorioz, haiek pairatzen duten egoeraz. Hau da, ibaiak, herriak, pertsonak, besteak beste, suntsitzen dituzte haien onurarako diruak edozer konponduko balu bezala. Era honetan, pertsonak haien duintasuna galtzen dute, baita komunitateekin duten harremana ere. Horregatik, Basoak espazio seguru bat ematen du haien borrokek ezagutzera emateko, baita elkarrekin ikasteko ere. Hortaz, isildutako ahotsak haien ahotsa berreskuratzeko aukera izango dute.

BA: “(...) Ellos hacen rupturas dentro de las comunidades, hacen rupturas dentro de las familias. También te crean unos daños psicológicos a

nosotras, las mujeres que resistimos en estos lados. Y cuando venimos para acá venimos con muchas cosas y necesitamos proyectos como Basoa, que nos ofrezca esto, que nos ofrezca la oportunidad de traer las poses de nuestras luchas, que podamos militar, pero también buscando una militancia sana porque allá no tenemos respiro. (...) Y poder encontrar este espacio donde podamos tener un aprendizaje recíproco entre movimientos sociales y defensa de territorios porque ambas miradas son importantes, porque si es para construir una vida diferente, un mundo diferente donde se viva con dignidad, se viva desde el respeto, donde el amor a la vida se ponga en el centro eso es lo importante. Y todo el que aporte a ese cambio cuenta. (...) es la oportunidad de que se escuchen las voces silenciadas” (E2: Basoako defendatzailea, izaera aktibista eta herritarra, migrantea, emakumea)

Basoatik, beraz, aldaketa bilatzen da, baita ahalduntzea ere. Era honetan, dagokiena defendatzeaz gain, galdutakoa berreskuratzeko ahaleginetan dihardute. Sinergien¹⁵ presentzia nabaria eta ongi etorria da. Beste modu batera esanda, edonor defentsa eta salaketa egiteko ongi etorria da.

BA: “Yo creo que nuestra casa común está siendo defendida de muchas formas y desde ahí partes a defender y a esto te convierte en una defensora de todos los derechos. O sea, no importa qué área defiendas, pero estás defendiendo. Y de eso nos debemos empoderar, no romancear de que las defensoras de territorio venimos de ahí porque hablamos bonito de la tierra estamos tirando girasoles. No, carajo, tiramos piedras y tiramos a dar. Defendemos la vida con el cuerpo, con la propia vida y empoderarnos nosotras mismas en nuestros propios derechos” (E2: Basoako defendatzailea, izaera aktibista eta herritarra, migrantea, emakumea)

¹⁵ Ezberdinen arteko elkarlanari deritzo

7. ONDORIOAK:

Ondorioen atalari hasiera emateko gogoan izan behar dugu ikerketaren hasieran bi ikerketa galdera mahaigaineratu ditugula. Alde batetik, zertan desberdintzen dira migranteei harrera egiten dieten eragile ezberdinen diskurtsoak eta praktikak? Eta bestetik, errekurso eta espazio ezberdinek baldintzatzen dute laguntza jaso duten migratzaileen bizipenak? Bi ikerketa galdera hauek kontuan izanda ondorioak jorratuko ditugu, hauei erantzun bat emanez.

Lehenengo galderari erreparatzen badiogu, esan genezake ondorio nagusia geroz eta politikoagoa izan, orduan eta independente eta hurbilagoa dela. Hau da, distantzia handia dago izaera instituzionalizatua zein profesionala duten eragileen eta izaera herritarra eta aktibista duten eragileen artean. Izan ere, lehenengo kasuan, hau da, izaera instituzionala eta profesionala dutenen kasuan, protokolo zehatzak abiatzen dituzte, honek dakarren burokraziarekin. Honen ondorioz, gizatasunaren desagerpena gertatzen da. Honen adibide IGG-arekin ikusi bezala, sartzeko prozesua izango genuke; izan ere, elkarrizketa indibidual baten ostean balorazioa egiten da. Gauza bera Zeharrekin gertatzen da. Hau da, Larraña etxera iristeko Cearrek edo Zeharrekin hiriburuetan dituen ofizinetatik bideratuak izan behar dira, balorazio baten ostean. Gainera, poliziak etorkinak hona bideratzen ditu ere. Bi eragile hauetan langileak topatzen ditugu, eta hortaz, bere posizioa ez dute ahazten jarduteko momentuan. Beraz, esan genezake migrante eta langile horien arteko harremana bertikala dela, baita hotza ere. Bi kasu hauetan beharizan materialak dira gailentzen direnak, modu asistentzialista batean.

Irungo Harrera Sarea eragile instituzional eta profesional hauetatik urruntzen da, Arte Sarea gerturatuz. Izan ere, bi hauek izaera herritarra eta aktibista daukate. IHS-k beharizan materialak eta emozionalak asetzen ditu. Aurretik ikusitako izaera asistentzial hori apur bat lausotzen da sare honekin; izan ere, laguntza edo asistentzia soziala eramaten dute aurrera. Honekin apurtzen du Arte Sarea. Sare honek eraldaketa bilatzen du, salaketei berebiziko garrantzia emanez. Gainera, harreman sare baten kide izatearen sentimendua bultzatzen du. Hau da, berdinen arteko harremana eta hortaz, horizontaltasuna ditu ardatz gisa. Basoa proiektuak balio hauek partekatzen dituen arren,

haratago doa. Izan ere, identitate partekatua sortzen du. Biek beharrian materialak zein emozionalak asetzen dituzte.

Garrantzitsua da azpimarratzea eragile instituzionalizatu eta profesionalek diru laguntzak jasotzen dituztela haien jardunerako, sareek ez bezala. Izan ere, azken hauek dohaintzei esker egin dezakete aurrera.

Eragile ezberdin hauen ezaugarriak ikusita, esan genezake eragile instituzionalizatuak eta profesionalizatuak karitatetik gertu daudela eta besteak, aldiz, elkartasunetik. Hala ere, Basoak bi jarrera horiek apurtzen ditu; izan ere, elkartasuna defendatzen du, baina ekintzetatik abiatuta.

Bigarren galderaren erantzunean murgilduz, esan beharra dago, ezin dugula esan errekurtso eta espazioek migranteen diskurtsoan eraginik dutenik; izan ere, biek jasotzen duten guztia -materiala eta ez materiala- biziki eskertzeaz gain, ez dute hitz txarrik erabiltzen edo kexarik adierazten. Hala ere, desberdintasun batzuk topatu ditzakegu. Artea Sarekoaren kasuan, sentimenduei eta maitasunari erreparatzen dio sarearen, kideen eta herritarren inguruan hitz egitean. Era honetan “familia” hitza erabiltzen du. Zeharrekoa, aldiz, jakiei, lo egiteko eta laguntza orokorrari erreparatzen die, sentimenduen muga gainditu barik. Aurretik esan bezala, honekin ondoriozta genezake AS-n sortzen diren harremanak horizontalak, estuagoak edo sakonagoak direla. Gainera, integratzaile/egoiliar kategoriek bereizketa bat egiten dute zeharreko gunean. Bakoitza non kokatzen den azpimarratzen du bereizketa honek, harreman asimetrikoak agerian utziz. Bereizketa hau ez da sareetan ikusten.

Ikerketa galderetan oinarritutako ondorioez gain, beste ondorio orokor batzuk ere atera ditugu, hurrengo lerroetan azalduko ditugunak.

Diseinu teknikoan eta metodologian ikusi bezala, profilen baldintza ezin izan da bete. Hau horrela izanik, elkarrizketatu guztiak neskak izan dira. Bi gauza ondorioztatu ditzakegu: (1) neskek prestutasun handiagoa daukate edo (2) neskek esparru honetan gehiago dihardute.

Beraz, atal honekin amaitzeko, helburuak ozta ozta bete direla aipatu beharra dago. Izan ere, gehiago sakondu daitezkeela uste dut, bere osotasunean erantzun bat eman ahal izateko. Helburuak modu integral batean bete ez izana esperientzia eta denbora faltarekin lotu genezake. Hortaz gain, bitartekari ezberdinetara -Gurutze Gorria, Eusko Jaurlaritza- iristeko zailtasunak helburuak guztiz betetzea oztopatu du. Azpimarratzekoa da elementu guzti hauek -esperientzia eta denbora falta zein zailtasunak- generoaren inguruan informazio nahikorik ez lortzea eragin dutela.

Ondorioekin amaitzeko, sinergiaren presentzia azpimarratu behar da. Izan ere, sareetan eta Basoako proiektuan nabaria da ezberdinen arteko elkarlana. Elkarrekin bidea egiten da nahiz eta pentsatzeko eta jarduteko modu ezberdinak izan.

8. BIBLIOGRAFIA:

- Albite, Pedro (2008). “Migrazioak, kultura-aniztasuna eta estaturik gabeko nazioak. Euskal Herriaren erronkak.” *Jakin aldizkaria* 165 apirila-martxoa.
- Aranguren, Eva (2021). Apoyo emocional a las personas migrantes en tránsito en el dispositivo gestionado por Cruz Roja de Irún.
- Arreseigor, Mikel. [MikelArreseigor]. (2022ko martxoaren 30a). *Hilotz bat topatu dute Bidasoa ibaian, desagertuta zegoen migratzailea izan daiteke!! Administrazio publikoek berehala hartu behar dituzte neurriak, berriro ez gertatzeko.* [Txioa] Twitter. Eskuragarri hemen: <https://twitter.com/MikelArreseigor/status/1509274076979814409>
- Baleuko (ekoizlea) eta Ainhoa Zabarte (zuzendaria) (2022). *Gerran*. Ur handitan. EITB. Eskuragarri hemen: <https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/ur-handitan/>
- Bauman, Zygmunt (2016). *Extraños llamando a la puerta*. (4ª ed.). Planeta, S.A.
- Betto, Frei (2021). No existen las razas, existe el racismo. *Rebelión*. Eskuragarri hemen: <https://rebellion.org/no-existen-las-razas-existe-el-racismo/>
- Bidasoa ibaian desagertuta jarraitzen du pertsona migratzaile batek (2022ko martxoaren 14a). *Gedar*. Eskuragarri hemen: <https://gedar.eus/aktualitatea/bidasoa-ibaian-desagertuta-jarraitzen-du-pertsona-migratzaile-batek/>
- Butler, Judith (2020). *Sin miedo. Formas de Resistencia a la violencia de hoy*. (1ª ed.). Penguin Random House Grupo Editorial.
- Cajigas-Rotundo, Juan Camilo (2007). La biocolonidad del poder. Amazonía, biodiversidad y ecocapitalismo. In Castro-Gomez, Santiago eta Grosfoguel, Ramón (2007). *El giro decolonial. Reflexiones más allá del capitalismo global* (169-190. or.).

Caminando fronteras (2022). El peor año en las fronteras: 4404 víctimas en las rutas de acceso a España durante 2021. Eskuragarri hemen: <https://caminandofronteras.org/el-peor-ano-en-las-fronteras-4404-victimas-en-las-rutas-de-acceso-a-espana-durante-2021/>

Castro-Gómez, Santiago eta Grosfoguel, Ramón (2007). Prólogo. Giro decolonial, teoría crítica y pensamiento heterárquico. In Castro-Gomez, Santiago eta Grosfoguel, Ramón (2007). *El giro decolonial. Reflexiones más allá del capitalismo global* (9-21. or.).

Del Toro, Marian. [Mariamdeltoro1]. (2022ko martxoaren 9a). *O todos NIÑOS o todos MENAS!!* [Txioa]. Twitter. Eskuragarri hemen: https://twitter.com/Mariamdeltoro1/status/1501624302319415296?s=20&t=Vj_6dwmYNtLTs_SYiK0pmQ

El mapa de los refugiados de la guerra de Ucrania: más de 5 millones de personas han abandonado el país (2022ko apirilaren 22a). *RTVE.es*. Eskuragarri hemen: <https://www.rtve.es/noticias/20220422/mapa-refugiados-guerra-ucrania/2297260.shtml>

Fernández, Iraide eta Shershneva, Julia (2017). Convivencia en espacios de racismo institucionalizado y/o político

Ferrás, Montserrat eta Martín, Alberto (2019). Asociaciones de inmigrantes y participación política como sociedad. *Migraciones* 46. ISSN: 2341-0833

Guerra ruso-ucraniana (2014-actualidad). *Wikipedian*. 2022ko apirilaren 20an berreskuratua. Eskuragarri hemen: [https://es.wikipedia.org/wiki/Guerra_ruso-ucraniana_\(2014-actualidad\)#:~:text=Situaci%C3%B3n%20militar%20dentro%20de%20Ucrania,24%20de%20febrero%20de%202022.&text=Por%20su%20parte%2C%20la%20crisis,el%20estatus%20pol%C3%ADtico%20de%20Crimea](https://es.wikipedia.org/wiki/Guerra_ruso-ucraniana_(2014-actualidad)#:~:text=Situaci%C3%B3n%20militar%20dentro%20de%20Ucrania,24%20de%20febrero%20de%202022.&text=Por%20su%20parte%2C%20la%20crisis,el%20estatus%20pol%C3%ADtico%20de%20Crimea)

- Grosfoguel, Ramón, (2007). Descolonizando los universalismos occidentales: el pluriuniversalismo transmoderno decolonial desde Aimé Césaire hasta los zapatistas. In Castro-Gomez, Santiago eta Grosfoguel, Ramón (2007). *El giro decolonial. Reflexiones más allá del capitalismo global* (63-77. or.).
- González, Luis Héctor (2013). “Acerca de la investigación sociológica y la entrevista cualitativa.” *Revista electrónica praxis investigativa redie. Vol. 5, N°8.* (92. or.).
- Gutiérrez, José David (2020). Resistencias desde la periferia: población Rrom en España
- Huarte, Ines (2019). Errefuxiatuak eta harrera herriak : Gipuzkoako harrera sareen azterketa. Eskuragarri hemen: <https://addi.ehu.es/handle/10810/45470>
- Ikuspegi (2021). Barómetro. Percepciones y actitudes hacia la población de origen extranjero. Eskuragarri hemen: https://www.ikuspegi.eus/documentos/barometros/2021/bar2021_cas.pdf
- Khosravi, Shahram (2010). *Yo soy frontera. Autoetnografía de un viajero ilegal.* (1ª ed.). Virus.
- Lacomba Vázquez eta Joan y Alexis Cloquell Lozano (2017). “Asociaciones de inmigrantes, Estados y desarrollo entre España y Colombia. ¿Un nuevo campo social transnacional?”. *Revista de Estudios Sociales 61: 44-57.* Eskuragarri hemen: <https://dx.doi.org/10.7440/res61.2017.04>
- Llega a Madrid una caravana de taxis con 135 refugiados ucranianos tras recorrer 6.370 kilómetros (2022ko martxoaren 1ª). *RTVE.es.* Eskuragarri hemen: <https://www.rtve.es/noticias/20220317/caravana-taxis-madrid-ayuda-refugiados-ucranianos/2314360.shtml>
- Lopez, Axier (2019). Mugalarien Artea. *Argia.* Eskuragarri hemen: <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2627/artea-herriko-benta>

- Maldonado-Torres, Nelson (2007). Sobre la colonialidad del ser: contribuciones al desarrollo de un concepto. In Castro-Gomez, Santiago eta Grosfoguel, Ramón (2007). *El giro decolonial. Reflexiones más allá del capitalismo global* (127-163. or.).
- Martinez, Zesar (2002). *Giza egintza, gizartearen egiturak eta aldaketa sozialaren produkzioa eta gidaritzak: globalizazioari buruzko diskurtso sozio-ideologikoak* (231-240 or.).
- Moreno, Gorka eta Aierdi, Xabier (2015). *Migrazioen soziologia. Gerturapen teoriko eta praktikoa*.
- Ouled, Youssef M. [ymouled]. (2022ko martxoaren 14a). *He hecho una breve guía para no perderse en el racismo de la UE*. [Txioa] Twitter. Eskuragarri hemen: <https://twitter.com/ymouled/status/1503152845759025157>
- Pintado, Ana Paula María. (2020). “Extranjeros en su tierra”: prácticas racistas y colonialidad del poder hacia los rálámuli de la Sierra Tarahumara. *Boletín De Antropología*, 35(59), 108–129. Eskuragarri hemen: <https://doi.org/10.17533/udea.boan.v35n59a07>
- Quijano, Aníbal (2007). Colonialidad del poder y clasificación social. In Castro-Gomez, Santiago eta Grosfoguel, Ramón (2007). *El giro decolonial. Reflexiones más allá del capitalismo global* (92-124. or.).
- Recaño, Joaquín (2002). “El papel de las redes en los procesos de migración interna”. *Política y Sociedad*, 2011, Vol. 48 Núm. 1: 9-25
- Sanchez, Gabriela (2022ko martxoaren 9a). Interior activa el sistema para dar papeles “en 24 horas” a los refugiados por la guerra de Ucrania. *ElDiario.es*. Eskuragarri hemen: https://www.eldiario.es/desalambre/interior-activa-sistema-dar-papeles-24-horas-desplazados-guerra-ucrania_1_8817351.html
- Sindicato de manteros de Madrid: <https://www.instagram.com/p/CAYTL2CqUT2/>

Unos 134.000 refugiados ucranianos llegan a España y 64.000 se acogen a la protección temporal (2022ko apirilaren 20a). *RTVE.es*. Eskuragarri hemen: <https://www.rtve.es/noticias/20220420/134000-refugiados-ucranianos-espana-sanchez/2334848.shtml>

Valles, Miguel (1999). *Técnicas cualitativas de investigación social. Reflexión metodológica y práctica profesional*. (1ª ed.). Síntesis S.A. (185. orr.).

Vancea, Mihaela; Boso, Àlex (2017). El transnacionalismo político de las asociaciones de inmigrantes en Barcelona. *Papeles de Población*, [S.l.], v. 23, n. 94. ISSN 2448-7147. Eskuragarri hemen: <https://rppoblacion.uaemex.mx/article/view/9329>

Vásquez, Lorena (2021). Asociaciones de inmigrantes y crisis económica. Examinando el papel de las asociaciones de inmigrantes en España entre 2008 y 2015. *Naveg@mérica. Revista electrónica editada por la Asociación Española de Americanistas* [online]. 2021, n. 27. ISSN 1989-211X.

Zehar. **Nor gara**. Eskuragarri hemen: <https://zehar.eus/eu/nor-gara/>

9. ERANSKINAK

9.1. Elkarrizketen gidoia

9.1.1 Eragileei zuzendutako gidoia

Hasierako agurra eta Grialaren azalpen laburra. Anonimotasuna bermatuko dela eta audioa grabatua izango dela gogorarazi, baita audioa transkribapenak egin ostean ezabatua izango dela ere. Azken hau nahi izanez gero egitean jakinaraziko zaie.

- Nola definituko zenuke eragilea/ proiektua? // ¿Cómo definirías la entidad / el agente / el proyecto?
- Zeintzuk dira helburuak eta helburuak betetzeko jarduerak? / ¿Cuáles son los objetivos y las actividades para lograrlos?
- Nolakoa da barne antolakuntza? / ¿Cómo es la organización interna?
- Nola definitzen duzue integrazioa? / ¿Cómo definiríais la integración?

- Zeintzuk dira harrera egiteko moduak? / ¿Cuáles son las maneras de acogida?
- Bilakaera bat egon da modu horietan edo hasieratik antzekoak izan dira? / ¿Ha habido una evolución en esas formas o han sido desde el principio iguales o similares?

- Nola finkatzen dira eman beharreko urratsak? / ¿Cómo se establecen los pasos a seguir?
- Oztopo edo blokeo uneak zelan gainditzen dituzue? / ¿Cómo superáis los obstáculos o los momentos de bloqueo?
- Zer motatako errealitateak eta perfilak aurkitzen dituzue? / ¿Qué tipo de realidades y perfiles encontráis?
- Perfil anitzak daudenez, haiekin lan egiteko modu ezberdinak baliatzen dituzue? / Como hay diversos perfiles, ¿empleáis diferentes modos de trabajar según el perfil?
- Nola gerturatzen zarete haiengana? Edo nola iristen dira zuengana? / ¿Cómo os acercáis a ellas? O ¿cómo llegan ellas a vosotras?
- Nolakoa da etorkinekiko harremana? / ¿Cómo es la relación con ellas?
- Zer nolako papera jokatzten du etorkinak prozesuan? / ¿Qué papel juega la migrante en el proceso?
- Proiektua aurrera eramateko ezinbestekoa da espazio eta errekurtsio egokiak izatea. Zuen kasua da? Nolakoak dira espazioak? Lehen esandako perfil anitz guztientzako aproposak dira? (bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartzen dira? → emakume, gazte, heldu... baten beharrak eta nahiak ez dira berdinak) / Para poder llevar a cabo el proyecto es imprescindible tener los espacios y recursos adecuados. ¿Es vuestro caso? ¿Cómo son los espacios? ¿Son adecuados para todos los perfiles? (¿se tienen en cuenta las características de cada perfil? (las necesidades y deseos de cada perfil pueden ser diversos y pueden variar: mujer, joven, mayor...)

- Eusko jaurlaritzatik edo beste instituzio edo eragileetatik inolako laguntzarik jasotzen duzue? / ¿Recibís ayuda del Gobierno Vasco o de otro tipo de institución, entidad, agente...?

- Beste eragile batzuekin jarduerarik egiten duzue / elkarlanean diharduzue?
// ¿Realizáis actividades o colaboráis con otros agentes?

- Baiezkoa bada: zer motatako eragileak dira? / Si es que sí: qué tipo de agentes son?

- Erresistentziarik nabaritu duzue? / ¿Habéis notado alguna resistencia?

- Amaitzeko, Ukraniako krisia aipatuko dugu. Krisialdi honek aldaketak eta arazoak mahaigaineratu ditu; hala nola, erakundeen diskurtso eta praktika aldaketak (azpiegiturak, lan baimenak, erregularizazioa...), antolakuntza eta saretze ezberdinak, laguntzak... Hau kontuan izanda, nola ikusten duzu harrera moduen aldaketa instituzioen aldetik? Eta gizartearen aldetik? / Para terminar mencionaremos la crisis de Ucrania. Esta crisis plantea cambios y problemas, como los cambios discursivos y de prácticas institucionales (infraestructuras, permisos de trabajo, regularización...), las diferentes formas de organización y de red, las ayudas... ¿Cómo ves el cambio de las formas de acogida institucional? ¿Y socialmente?

- Zerbait gehitzeko? / ¿Te gustaría añadir algo?

Agurra eta eskerrak

9.1.2. Etorkinei zuzendutako gidoia

Hasierako agurra eta Gralaren azalpen laburra. Anonimotasuna bermatuko dela eta audioa grabatua izango dela gogorarazi, baita audioa transkribapenak egin ostean ezabatua izango dela ere. Azken hau nahi izanez gero egitean jakinaraziko zaie.

- Jakin badakigu migrazio prozesua hamaika faktoreen ondorioz izan daitezkeela eta errealitateak oso ezberdinak izan daitezkeela. Gainera, luzea eta gogorra izan daiteke eta oztopoz beterik dago. Zurea ere horrela izan da? // Sabemos que el proceso migratorio puede deberse a múltiples factores y que las realidades pueden ser muy diferentes. Además, puede ser larga y dura y está llena de obstáculos. ¿Lo tuyo también ha sido así?

- Aldaketa handia izaten da norberaren lurraldea uztea eta beste batera joatea, helmugako jatorria ezagutu barik. Nolakoa da zure bizitza hemen? / Es un cambio importante abandonar el propio territorio y trasladarse a otro sin conocer el origen del destino. ¿Cómo es tu vida aquí?

- Zeintzuk dira zure zailtasun nagusiak? Egonez gero, zeintzuk dira topatu dituzun euskarriak edo laguntzak? / ¿Cuáles son sus principales dificultades? ¿Cuáles son los soportes o ayudas que has encontrado, si los hay?

